

I. XEDAPEN OROKORRAK**ESTATUKO BURUZAGITZA**

2219 *1/2014 Legea, otsailaren 28koa, lanaldi partzialeko langileak babestekoa eta arlo ekonomiko eta sozialeko beste premiazko neurri batzuei buruzkoa.*

JUAN CARLOS I.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusi eta aditzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela, eta Nik, hemen, berretsia egiten dudala:

HITZAURREA**I**

Gure herrialde honetan jasaten ari garen krisialdia dela-eta, hainbat erreforma egin beharra dago, ekonomia berriz ere haz dadin eta enplegua sor ahalik eta eperik laburrenean.

Duela urte eta erditik hona, hainbat erreforma ari dira egiten azpiegituren arloan, aireko eta lurreko garraioen arloan, trenbide- eta itsas-garraioen arloan eta etxebizitzaren arloan, haien lehiakortasuna eta eraginkortasuna areagotzearen.

Nolanahi ere, aurrera egin behar da erreformen bidetik, eta, beraz, neurri gehiago ere onartu behar dira aurrerantzean, egoki irizten bazaizkio.

Lehenik eta behin, Aire Segurtasunari buruzko Legean (21/2003 Legea, uztailaren 7koa), aldatu egiten da 92. artikuluan c) letra, han defizita kalkulatzeko xedatzen den formula doitzearren, hartara, hegazkin-konpainia zenbaitekin iritsitako akordioa dela-eta, AENA Aeropuertos, S.A. sozietateak jaso beharreko ondare-prestazio publikoen gehieneko gehikuntza apaltzearen eta artikulua horretan lehenbiziko hiru urteetarako hasieran aurreikusitako gehikuntzaren gehieneko muga 2018. urtera arte luzatzeko, eta defizita berdintzeko hala sorrarazten den epea bost urte arte luzatzeko. Neurri honekin, aire-garraioa bere oneratu egingo da, eta, harekin batera, baita espainiar turismo-sektorea ere. Bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, unitate-tarifen gehikuntzak 2013an eskatzekoak diren zenbatekoen gainean aplikatuko dira, AENA Aeropuertos, S.A. sozietateak jasotzen dituen ondare-prestazio publiko bakoitzarengatik (lege honen I. eranskinean dago jasota).

Presaz hartu beharra dago neurri hau, hegazkin-garraioa eta turismo-sektorea sustatzeko, horixe baitzen xedea. Alde horretatik, ezinbestekoa da hegazkin-konpainiek, hurrengo denboraldietarako programak garatzen hasi baino lehen, tarifen esparrua berretsirik izan dezaten.

Trenbide Sektorari buruzko Legean (39/2003 Legea, azaroaren 17koa), aldatu egiten dira 21.1. artikuluan l) letra, 73. artikuluan 1., 5. eta 6. paragrafoak, 77. artikulua eta 81.1 artikuluan j) letra, trenbide-kanonen zenbatekoak aldatu eta eguneratzeko prozedura ezartzearen, eta, hala, trenbide-azpiegituren administratzaileei esleitzen zaie azpiegitura horiek proposatzeko eskumena. Halaber, Sustapen Ministerioari gaikuntza ematen zaio Trenbide Sektorari buruzko Legean bertan ezarritako hoberi- eta pizgarri-sistema aplikatzeko oinarriko printzipioak garatu eta eguneratu ditzan.

Aldaketa horren xedea da arau horiek Europako Erkidegoaren araudiaren arabera egokitzea eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2013ko otsailaren 28an Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2001/14/EE Zuzentarauari buruz emandako epaia betearaztea – 2001/14/EE Zuzentaruua, otsailaren 26koa, trenbide-

ahalmena esleitzeari, trenbide-azpiegitura erabiltzeko ordaindu beharreko sariak aplikatzeari eta segurtasunaren ziurtapenari buruzkoa.

Bestalde, iragan uztailaren 24an Santiagon gertatutako istripu zorigaitzokoaren ondoren argi geratu zen arreta integrala eman behar zitzaiela bai istripuaren biktimei, bai haien hurbilekoei, eta haien beharren arabera laguntza- eta arreta-mekanismoak jarri behar zitzaizkiela eskura.

Mekanismo horiek egiaz izango direla bermatzeko, indartu egin da haiek arautzen dituen araudia, eta, hartara, gobernuak, errege-dekretuz, estatuaren eskumeneko trenbide-garraioko istripuen biktimei eta senideei laguntzeko erregelamendu bat onartuko du. Izan ere, biktimei arreta eskaintzeko erregelamendua ahalik eta eperik laburrenean garatzeko beharriak dakar presa hori. Horretarako, legeak gaikuntza eman behar du aurretik, zeren eta gerta bailiteke erregelamendu horretan bertan betebeharrak espezifikoki ezarri behar izatea zerikusiren bat izan duten trenbide-garraioko enpresa eta entitateei (garraioaren arloko enpresak eta entitateak, esan nahi da).

Neurri honek, hain zuzen, gainditu egin nahi ditu Trenbide-bidaiarien eskubide eta betebeharrak buruzko Europako 1371/2007 Erregelamendua ezarritako gutxienekoak; hala, neurri hau oinarria izango da bidaiarien babes- eta aseguru-sistema guztietan aurrerago joateko.

Bestalde, 2013ko uztailaren 24an izandako istripua dela-eta, RENFE-Operadora enpresa-erakunde publikoak, legez dagozkion kasuetan eta baldintzen arabera, bere esku izango du kalte-ordainerako eskubidea duten pertsonen berehalako beharriak ekonomikoak erantzuteko beharrezkoak diren zenbatekoak ordaintzea, erakunde aseguratuak bidaiarien nahitaezko aseguruagatik ordaindutakoez edo erantzukizun zibilagatik kontura aurreratutakoez gain. Trenbide-bidaiarien eskubide eta betebeharrak buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007ko urriaren 23ko 1371/2007 (EE) Erregelamendua dio ezen, istripuren batean bidaiariak zauritu edo hilez gero, haien berehalako beharriak erantzuteko diru-zenbatekoak aurreratu beharko dituztela trenbide-enpresek.

Hori dela eta, RENFE-Operadora enpresa-erakunde publikoari gaikuntza ematen zaio legearekin bat dagozkion konturako aurrerakinak ordain ditzan.

Gainera, aldatu egiten da Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko 17/2012 Legearen III. eranskina (17/2012 Legea, abenduaren 27koa), hartara kreditu-eragiketarik hitzartzeko ADIFi baimentzen zaizkion diru-zenbatekoak handitzeko: 1.109.220,00 mila eurotik 1.684.298,00 mila eurora aldatuz diru-zenbatekoa; finantza-merkatuen egoeran berriki izandako aldaketa positiboen ondorioz ematen da aukera hori, egungo egoera aprobetxatze aldera, zeren eta, 2012. urtean, merkatuaren egoera zela-eta, ADIFek ezin izan baitzuen bereganatu ekitaldi horretarako aurreikusita zegoen zorpetze-muga.

II

II. kapituluari, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginean lanaldi partzialeko lanaren gizarte-babesari buruz sartutako aldaketak datoz (xedapen honen bidez onartu zen testu bategina: 1/1994 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa); berariazko arau batzuk dira, lanaldi partzialeko langileei aplikatzeko den Gizarte Segurantzaren babes-ekintzari buruzkoa.

Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren zazpigarren xedapen gehigarriak lanaldi partzialeko langileei aplikatuko zaizkien arauak dakartza, eta, 1. paragrafoko bigarren arauak, hain zuzen, Gizarte Segurantzaren prestazio horiek jasotzeko eskubidea sorrarazteko behar diren kotizazio-aldiak zehazten ditu.

Nolanahi ere, Konstituzio Auzitegiaren osokoak, martxoaren 14ko 61/2013 epaiaren bidez, Konstituzioaren kontraketatik eta deuseztat jo du zazpigarren xedapen gehigarriaren 1. paragrafoaren bigarren araua, azaroaren 27ko 15/1998 Errege Lege Dekretuak emandako idazketaren arabera (15/1998 Errege Lege Dekretua, lan-merkatua lanaldi partzialari buruz hobetzeko eta haren egonkortasuna sustatzeko presazko neurriak buruzkoa); Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua urratzen duela iritzita, berdintasunerako eskubidea kaltetzeagatik eta, nagusiki emakumeen enpleguari

eragiteagatik, zeharka sexua dela-eta diskriminazioa eragiteagatik. Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren kontrakotzat eta deuseztat jo du arau hori, baina argitu gabe utzi du zer ondorio juridiko eragiten dituen. Epai horren ondoren etorri dira 71/2013 eta 72/2013 epaiak, biak ere apirilaren 8koak, eta 116/2013 eta 117/2013 epaiak, maiatzaren 20koak.

Epai horiek kotizazio-aldien kalkulari eragiten diote; hain zuzen ere, lanaldi partzialeko kontratuekin egindako epeei dagozkien prestazio ekonomikoak eskuratzeko behar diren kotizazio-aldien kalkulari –aldizkako lan-kontratuak barne, diren lanaldi partzialekoak edo osokoak–, kontuan hartu gabe ea lanaldi-murrizketa egunen, asteen, hilabeteen edo urteen arabera egiten den.

Konstituzio Auzitegiaren iritziz, lanaldi partzialeko langileei, gabealdiak kontatzeari begira, tratu ezberdina ematen zaie, lanaldi osoko langileei ez bezalakoak, eta ez dago horretarako arrazoi zentzuzkorik, proportzionaltasuna izango duenik onartutako neurriaren, emaitzaren eta neurriaren zertarakoaren artean.

Horren guztiaren ondorioz, beharrezkoa izan zen lege mailako arau bat ematea, arau hori deuseztatu izanak gabealdiak kontatzeari begira eragin zuen hutsunea betetzeko, hain zuzen, lanaldi partzialerako kontratatutako langileek Gizarte Segurantzaren prestazioak sorrarazteari begira, betiere.

Abuztuaren 2ko 11/2013 Errege Lege Dekretuak —lanaldi partzialerako kontratatutako langileak babesteko eta presazko beste neurri batzuk, dela ekonomiari dela gizaritari begira, hartzekoa— jaso zuen arau hori, eta haren oinarrian dago gobernuaren iritziz, gizarte-justizia arrazoiak direla-eta, prestazioa eskuratzeko behar den urte kopurua malgutu behar dela, horrela langileen —lanaldi partzian zein osoan ari direnak— arteko berdintasun printzipioa bermatua gelditzen da, bai eta Konstituzio Auzitegiaren epaia betetzen ere.

Lege honetan txertatzen den arauak lanaldi osoko langileari eta lanaldi partzialeko langileari ahalegin bera eskatzeko formula jasotzen du. Hala, bada, xedea hau baizik ez da: ez dadila desproporziorik izan langileak egiaz egindako kotizazioen eta jasoko duen prestazioaren artean. Horrela, bada, indarrean dauden lanaldi partzialeko kontratuekin egindako epeei buruzkoa da lege-aldaketa, lanaldi osoko langileen kasuan bezalaxe.

Ondorioz, proportzionaltasuna gordetzen da, prestazioak, pentsioak eta subsidioak eskuratzeko eskubidean, bai eta horien zenbatekoan ere. Hori dela eta, II. kapitulu honen xedek dira:

1. Lan-jarduera bat edo lanbide-jarduera bat gauzatzen duten pertsona guztiei ematea babes egokia.
2. Kontribuziozkotasunari, proportzionaltasunari eta ekitateari eustea gizarte-segurantzako espainiar sistemaren printzipio eta ezaugarri gisa.
3. Ekitateari eustea, lanaldi osoko langileen egoerarekiko.
4. Iruzurrezko edo arau kontrako egoerak saihestea, eta ez eragitea sisteman kotizatzeo sustagarria gal dadin.

Aldaketa horien bidez, «lanaldi partzialeko langileek babes soziala eskuratzeko baldintza errazagoak izateko akordioa» garatzen da, joan den 2013ko uztailaren 31n Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak eta Comisiones Obreras, Unión General de Trabajadores, Confederación Española de Organizaciones Empresariales eta Confederación Española de la Pequeña y Mediana Empresa erakundeek sinatutakoa, alegia.

III. kapitulan, hainbat aldaketa sartzen dira langabezia-prestazioa eta -subsidioak jasotzen dituztenei segurtasun juridiko handiagoa emateko; hala, langabezia-prestazioa eta -subsidioa jasotzeko eskubidearen jabe izaten jarraitzeko, onuradunek izena eman beharra dute, eta, izena emanda jarraitzeko, enplegu-eskaria beritu.

Segurtasun juridiko handiagoa bermatzea aldera, legeak dio ezen, noizbait atzerrira irtenez gero urte naturalean gehienez ere 15 egun naturaleko epe batez, ez duela horregatik onuradunak onuradun izatea galduko, eta langabezia-prestazioa edo -subsidioa izango duela aurrerantzean ere. Horrez gain, langabezia-prestazioa eten egingo da zenbait kasutan, berriaz halaxe ezarrita: atzerrira egonaldia egitera joanik, gehienez ere

90 egunerako; edo egoitza atzerrira aldatuz gero, 12 hilabete baino gutxiagoko epe baterako, lanera edo lana bilatzera, lanbide-hobekuntzako ikastaroak egitera, edo nazioarteko laguntza ematera joanik. Nolanahi ere, aldez aurretik, jakinarazi egin beharko zaio erakunde kudeatzaileari, eta hark baimena eman beharko du irteteko, ezpabere, galdu egingo da prestazio horretarako eskubidea.

Lege honen 7. artikulua aldatu egiten du Enpleguaren Legearen 27. artikulua (56/2003 Legea, abenduaren 16koa), haren edukia Gizarte Segurantzako Lege Orokorrean sartutako aldaketen arabera egokitzeko, eta 8. artikulua, berriz, Arlo sozialeko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 22., 24., 25., 47. eta 48. artikulua aldatzen ditu (abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako testua), arau-hausteen eta zehapenen araubidea egokitzearren, behin enplegu-eskatzailerik gisa izena ematea eta izena emanda jarraitzea prestaziorako eskubidea izateko eta hari eusteko nahitaezko baldintzatat ezarri direnez geroztik. Gainera, bitarteko elektronikoen bidez helarazitako zitazio eta mezuen balioa sendotu egiten da, betiere langabezia-prestazioen onuradunek aldez aurretik adostasuna agertzen badute.

Azkenik, Arlo sozialeko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legearen testu bategina ere aldatu egiten da, proportzionaltasunari euste aldera, alegia, batetik, egun indarrean dagoen arau-hausteen eta zehapenen sistemak proportzionaltasuna izan dezan enpresariak zenbait neurri jakinarazteko duen betebeharrari begira; hain zuzen ere, jakinarazi egin behar dizkio Estatuaren Enplegu Zerbitzu Publikoari, hasierako mezu baten bitartez, martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuari buruzko testu bateginaren 51. artikulua arabera ezarritako kaleratze kolektiboko neurriak, 47. artikulua arabera ezarritako kontratuak eteteko eta lanaldia murrizteko neurriak.

Bestalde, III. kapituluaren egindako arau-aldaketen beharrezko aparteko eta presazkoari dagokionez, agerian jarri behar da enplegu eta Gizarte Segurantzaren arloko neurriak direla, zeinak, aldez, langabeziatik babesteko neurrien eta langabetuei ezartzen zaien ikuskapenaren arteko lotura indartzeko baitira, eta, bestetik, enpresariei eta langabezia-prestazio eta -subsidioen hartzaileei segurtasun juridiko handiagoa emateko xedea betetzeko. Hala, bada, ezinbestekoa da nahitaezko baldintzatat ezar daitezkeen enplegu-eskatzailerik gisa izena ematea eta izena emanda jarraitzea, prestazioa jasotzeko eskubidea izango bada eta eskubide horri eutsiko bazaio. Aurreko neurri horrekin bat etorritik, beharrezkoa da, orobat, ahalbait lehen egin daitezkeen Informazioaren Gizartea Sustatzeko Neurri buruzko Legearen (56/2007 Legea, abenduaren 28koa) eta gai hori arautzen duen arau-hausteen eta zigorren araubidean egin beharreko egokitzak.

Hala, bada, enpresariak Langileen Estatutuaren 47. artikulua eta 51. artikulua arabera kontratuak eteteko edo lanaldia murrizteko neurriak eta kaleratze kolektiboko neurriak onartzen dituzenean, betebeharra du erabaki hori aldez aurretik jakinarazteko, eta, beraz, betebeharrak ez betetzea berariazko arau-hauste gisa tipifikatzea lehenbailehen onartu beharreko neurria da, oraintsu abiarazi berri delako datuen komunikazio elektronikoko sistema, maiatzaren 20ko ESS/982/2013 Aginduaren bitartez (ESS/982/2013 Agindua, maiatzaren 20koa, enplegatzaileek langabezia-prestazioak kudeatzen dituen entitateari kaleratze kolektiboaren eta kontratu-etete eta lanaldimurrizketen kasuetan egin beharreko jakinarazpenaren edukia eta bidalketa-prozedura arautzen dituenak). Eragotzi egin nahi da onuragarriagoa izan dadin arau-haustearantz jakinarazpenik ez egitea eta hartara betebeharrak guztiz bete gabe uztea, ezen aldaketak ez jakinaraziz aldez ez betetzea; horrexek dakar proportzionaltasun-printzipioa urratzen duten egoerak saihesteko lege-aldaketak premiaz egin beharra, egoera horiek erasan egin baititzakete langileen eskubideak, babes sozialeko sistema eta enpresen arteko lehia askea.

Lege honen IV. kapituluaren, aldatu egiten dira Langileen Estatutuko Legearen testu bateginaren zenbait arau, hain zuzen ere, honako hauek arautzen dituztenak: mugikortasun geografikoko neurri kolektiboak (40. artikulua) hartu behar direnean, edo lan-baldintzen funtsezko aldaketak eragiteko neurriak (41. artikulua), edo kausa

ekonomiko, tekniko, antolamenduzko edo produkziozkoengatik kontratuak eteteko edo lanaldia murrizteko neurriak (47. artikulua), edo kaleratze kolektibokoak (51.2 artikulua) eta lan-hitzarmen kolektiboetan aurreikusitako lan-baldintzak ez aplikatzeko neurriak (82.3) hartu behar direnean egin beharreko kontsulta-aldian zehar enpresa-zuzendaritzaren aurrean langileen ordezkari gisa solaskide izateko legitimazioa izango duten subjektuak arautzen dituzten arauak.

Prozedura hauetan guztietan ezartzen da kontsulta negoziazio-batzorde bakar batean gauzatuko dela; eta, hainbat izanez gero eragiten zaien lantokiak, prozedurak eragiten dien lantokiak baizik ez direla sartuko kontsultaren eremuan. Aldaketa honekin, desagertu egiten da kontsulta lantoki bakoitzean bereiz egiteko aukera, hain zuzen ere, egun urriaren 29ko 1483/2012 Errege Dekretuan aurreikusten dena (1483/2012 Errege Dekretua, urriaren 29koa, kaleratze kolektiboko eta kontratuak eteteko eta lanaldia murrizteko prozedurak onartzen dituena). Negoziatio-batzordea, gehienez ere, hamahiru lagunek osatuko dute, kontsulta-aldian parte hartzen duten alderdietako bakoitzaren ordezkari gisa, betiere enpresako hitzarmen kolektiboaren negoziatio-batzordeko kide kopuruarekin bat etorritik.

Arauketa berri horretan, langileak ordezkatzeko dituen batzordea kontsulta-aldia hasi baino lehen eratu beharko da, eta berariaz xedatuko da ezen, batzorde hori eratu ezean, ez dela eragotziko ez kontsulta-aldia hastea, ez behar duen bezala burutzea. Gainera, batzorde hori nortzuek osatuko duten hobeto zehazten da: gehienez ere hamahiru kide izango ditu, betiere ordezkatzeko dituzten lantegietako langile kopuruarekiko proportzioan.

Gainera, kaleratze kolektiboaren kasuan, aldatu egiten da 51. artikulua enpresak eman beharreko informazioari dagokionez, arauzko dokumentazioa aurkeztu ezean kaleratze kolektiboaren deuseztasuna deklaratzeko kasua zedarrizteko orduan segurtasun juridikoa hobetzearren. Bestalde, lege honen 10. artikulua egokitu egiten du Konkurtso Legearen 64. artikulua edukia (22/2003 Legea, uztailaren 9koa), kontsulta-prozeduretan negoziatio-batzordeari eragiten dioten aldaketen arabera; artikulua horren edukia, izan ere, behin konkurtsoa deklaratu ostean lan-baldintza kolektiboaren funtsezko aldaketarako prozedurak –lekualdatze kolektiboak barne– eta lan-harremanen etete edo azkentze kolektiborako prozedurak tramitatzeari buruzkoa baita.

Bestalde, 11. artikulua aldatu egiten du Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legea (36/2011 Legea, urriaren 10ekoa), kaleratze kolektiboaren prozesu-modalitateari dagokionez, inpugnazio kolektiboak tarte zabalagoa izan dezan. Argitu egiten dira kaleratze kolektiboaren kausak, segurtasun juridiko handiagoa izan dezaten, eta aukera ematen da kaleratze kolektibo bat deusez jotzen duten epaiak zuzen-zuzenean betearazi ahal izan daitezen, banakako prozeduren beharrik gabe.

III

Lege honen xedapen gehigarriek hainbat gai arautu eta argitzen dituzte.

Beste xedapen bat gehitzen da, Banku Berregituratzearen ondoriozko Aktiboak Kudeatzeko Sozietatea estatuaren etxebizitza-planetako laguntzen kudeaketarako erakunde laguntzailatzat jotzen duena, erakunde horrekin hitzartutako maileguez estatuaren laguntza atxikiak izan daitezen aurrerantzean ere.

Xedapen hori lehenbailehen ezarri beharra justifikatzen duten arrazoiak honako hauek dira: hainbat finantza-erakundetatik aktiboak transferitu izana Banku Berregituratzearen ondoriozko Aktiboak Kudeatzeko Sozietateari, eta, transferentzia horietan, hainbat mailegu sartu izana estatu-laguntzaren baten onuradun zirenak, edo estatuaren hurrenez hurrengo etxebizitza-planetan jasotako laguntzena, finantza-erakundearen eta Sustapen Ministerioaren artean (edo garai batean Etxebizitza Ministerioa izan zenaren artean) sinatutako hitzarmenen ondorioz. Hitzarmen horietan badira subrogazioari buruzko hainbat murriztapen, eta, gainera, Banku Berregituratzearen ondoriozko Aktiboak Kudeatzeko Sozietatearen izaera berezi hori dela eta, zeina ez baita, berez, finantza-erakunde laguntzailea, hainbat ondorio kaltegarri izan dira, hitzarmen horien peko maileguetarako laguntzak galtzea eragin dutenak; beharrezkoa da egoera hori konpontzea ahalik eta arinen, kalte ezin konponduzkoak sor ez dakizkien higiezin-sustapenei.

Beste alde batetik, 4/2013 Legeak (4/2013 Legea, ekainaren 4koa, etxebizitzak alokatzeko merkatua malgutzeko eta sustatzeko neurriei buruzkoa), bigarren xedapen gehigarrian, hainbat neurri ezartzen ditu Estatuaren etxebizitza-planei aplikatzeko, preklusio-epeak ezarriz, eta, hala, Banku Berregituratzearen ondoriozko Aktiboak Kudeatzeko Sozietateari transferitutako maileguetarako berariazko konponbide bat proposatu beharra dakar lege horrek, 4/2013 Lege horren bigarren xedapen gehigarrian sartutako neurriek eta egutegiak eragin egingo bailiekete mailegu transferitu horiei.

Era berean, hirugarren xedapen gehigarria sartu da legean, eta zera dio, FOM/898/2005 Agindua aurrerantzean ere aplikatu egingo dela, 77. artikuluko berriaren bidez ezarritako prozeduraren bidez trenbide-kanonen zenbatekoen lehen eguneratzea egiten ez den bitartean, eta, orobat, hainbat aldaketa sartzeko agindu horretan.

Xedapen horrek berak jasotzen duen aipatu aginduaren aldaketa beharrezkoa da trenbide-kanonak finkatzeko parametroak europar araudiak ezartzen dituen baldintzei eta Trenbide Sektoreari buruzko Legearen 73. artikulukoaren idazketa berriari egokitzeko. Hala, aukera emango da Estatuaren 2014. ekitaldirako Aurrekontu Orokorren Legean trenbide-kanonen zenbatekoak eguneratu aurretik trenbide-kanonen diseinu berria izateko.

Trenbide-kanonen zenbatekoak finkatzeko parametroak aldatzera, aukera izango da geroan zenbateko horiek eguneratu behar direnean ADIFek kudeatzen dituen azpiegiturak mantentzeko eta kontserbatzeko kostu errealak hobeto berdindu daitezten, eta, horrela, trenbide-sektorearen aurrekontu-egonkortasunari lagundu, iraunkortasun ekonomikoaren xederako bidean aurrera egin eta diru-bilketa horren mailak trenbide-azpiegituren beste administratzaile europar batzuen mailalara hurbiltzeko.

Horrenbestez, ahalbait lehen betearazi nahi da Europar Batasunaren Justizia Auzitegiaren 2013ko otsailaren 28ko epaia, zeinak kondenatu egiten baitu Espainiako Erresuma Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko otsailaren 26ko 2001/14/EE Zuzentaraua ez betetzeagatik (2001/14/EE Zuzentaraua, otsailaren 26koa, trenbide-azpiegituraren ahalmena esleitu, azpiegitura hori erabiltzeko kanonak aplikatu eta segurtasuna ziurtatzeari buruzkoa); horrexegatik da hain presazkoa neurri hori.

Laugarren xedapen gehigarriak dio ezen Gobernuak, araua indarrean sartzeko denetik urtebeteko epean, txosten bat egingo duela lanaldi partzialeko langile guztiei ezartzen zaizkien neurriek izango duketen eraginari buruz, eta proposamenak ere egin ahal izango dituela, bai kotizazioa, bai kolektibo horren babesa hobetzeko.

Lehen xedapen iragankorrak ezartzen du ezen lanaldi partzialeko langileak babestearen inguruko araubide berria honakoei aplikatuko zaiela, araubidean bertan xedatu bezala: 2013ko abuztuaren 4a baino lehen ukatu diren Gizarte Segurantzaren prestazioei, exijitzen zen gutxieneko kotizazio-aldia egiaztatu ez dutelako ukatu ere, eta eskabidea izapidetzeko bidean dutenei.

Bigarren xedapen iragankorrak ezartzen du ezen Langileen Estatutuaren 40., 41., 47., 51. eta 82. artikuluetan arautzen diren prozedurak eta Konkurtso Legearen 64. artikuluan araututakoak, 2013ko abuztuaren 4a baino lehen hasita bazeuden, hasi zirenean indarrean zen araudiaren pean izango direla.

Hirugarren xedapen iragankorrean, kausa ekonomiko, antolamenduzko, tekniko edo produkziozkoengatik edo ezinbestek eragindakoengatik kaleratze kolektiboari aplikatuko zaien prozesu-araubidea arautzen da.

Azken xedapenetako lehenean, eskumen-tituluak jasotzen dira, eta azken xedapenetako bigarrenari dagokionez, esan beharra dago ezen, behar bezala baimendutako enplegu-agentzien bidezko lan-merkatuko bitartekaritzaren arloan sektore pribatuaren eta publikoaren arteko elkarlana bideratze aldera, eta, hartara langabetuen laneratzea hobetze aldera, aldatu egiten duela abenduaren 30eko 1796/2010 Errege Dekretuaren 5. artikulua, enplegu-agentziak arautzen dituen, lan-bitartekaritzaren eremuan azpikontratazioa baimentzearen, nahiz eta muga bat izan horrek ere, hain zuzen, azpikontratazioa enplegu-agentzia gisa lan egiteko baimena duten hirugarrenekin baizik ezingo dela egin.

Azken xedapenetako hirugarrenean, 625/1985 Errege Dekretua aldatzen da (625/1985 Errege Dekretua, apirilaren 2koa, langabeziatik babesteko abuztuaren 2ko 31/1984 Legea

garatzekoa) langabezia-prestazioa edo -subsidioa eskatzea edo jasotzea eta aldi berean inoren kontura edo norberaren kontura lan egin ahal izatea eragozteko, enpresariak edo langileak berak epez kanpo eskatzen duenean alta Gizarte Segurantzaren, ikuskapen-jardueraren ondorioz.

Lanak egin izana prestazioa eteteko kausa da, eta, hala, jakinarazi egin behar da aldez aurretik; hartara, betebeharrak, parekatu egiten dira prozedura eta afiliazio/altaren arloan den betebeharra.

Azken xedapenetako laugarrenean, hainbat aldaketa egiten zaizkio 1483/2012 Errege Dekretuari (1483/2012 Errege Dekretua, urriaren 29koa, kaleratze kolektiboaren eta kontratu-eteteen eta lanaldi-murrizteen prozeduren erregelamendua onartzen duena), arautzen dituen prozedura horien erregelamenduzko araudia lege honek Langileen Estatutuaren 47. eta 51. artikuluetan sartutako aldaketen arabera egokitzeko, prozeduretako negoziazio-batzordeari dagokionez eta lan-agintaritzari prozeduraren hasieran egin beharreko jakinarazpenaren edukiari dagokionez, batez ere.

Langabezia-prestazioarekin edo -subsidioarekin bateraezinak diren lanak kontratuak eteteko kausa direnean aldez aurretik jakinarazpena egiteko obligazioa –azken xedapenetako hirugarrenean arautzen da– hara zergatik ezarri zen: gaur egun altak epez kanpo jakinarazten direnean gertatzen ari diren okerreko arau-interpretazioak saihestearren, hain zuzen, uste izaten baita ez dela batera gertatzen ari prestazioaren edo subsidioaren jasotzea eta lan egitea, lan egindako egun horri dagokion prestazioa kobratuko ez denez. Egoera horrek, nolahi ere, lagundu egiten du prestazioetan iruzurra gerta dadin, eta horrek ondorio negatiboak dakartzkio prestazioen eskatzaileen edo onuradunen arteko tratu-berdintasunari, eta eraginkortasunik gabe uzten langabezia-prestazioetako iruzurraren kontrako borroka.

Azken xedapenetako bosgarrenean, Europako Batzordearen 2013ko uztailaren 17ko erabakia betearazi nahi da, finantza-errentamenduko zenbait akordiori aplikatzekoa zaion zerga-araubideari buruzkoa baita, eta, hala, arauen egokitzean aurrera egin, hain zuzen ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen testu bateginaren 115. artikulua 11. paragrafoan xedatutakoari jarraituz (betiere, lehen aipatutako egun horietan indarrean zen idazketaren arabera) emandako administrazio-baimenei dagokienean eta itsasontzizko entitateen tonajearen araberako zerga-araubide berezia ekonomia-intereseko taldeen aldeko bihurtzeari dagokienean, betiere indarrean badira bai batzuk bai besteak.

Azken xedapenetako seigarrenak eragindako aldaketaren helburua zera da, segurtasun juridiko handiagoa eskaintzea toki-erakunde batek Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtzarekin dituen zorren ordaintzetan egunean ez dagoen kasuetan, hartara, artean hornitzaileei ordaindu ez dizkien fakturak mekanismo horren kontura ordaintzeko zer lege-aukera dituen argitzearen. Hona zeintzuk diren aukerak: beranduenez ere 2013ko irailaren 15ean, ordaintzeke dituen zorrak ordaindu behar dituzten Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtzaren kontura, edo, bestela, eskaturik izan behar du finantza-arazoekiko udalerrirentzako likidotasan-neurri gehigarrietan sartzea, alegia, 8/2013 Errege Lege Dekretuan xedatutako neurrietan (8/2013 Errege Lege Dekretua, ekainaren 28koa, herri-administrazioen berankortasunaren kontrako eta finantza-arazoak dituzten toki-erakundeei laguntzeko premiazko neurri buruzkoa).

Kontua hala argiturik, toki-erakunde gehiagok izango dute aukera mekanismoaren hirugarren eta azken fase horri heltzeko, baldin eta aukera horien arteko bat hautatzen badute, eta, hala, hornitzaileei egin beharreko ordaintzeta bideratuko dute. Era berean, mekanismo horretatik kanpora geratu ziren eskualde-kontseiluen hornitzaileekiko zorrak ere kitatu ahal izango dira. Nahiz eta kontseilu horiek ez duten Estatuaren tributuetan parte hartuko dutelako bermerik, autonomia-erkidegoak hartuko du bere gain, unibertsitateen kasuan bezala, Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtzari mailegua ordaintzeko betebeharra.

Beharrezkoa da aldaketa hori, toki-erakunde hornitzaileei ordaintzeko finantzaketa-mekanismoaren hirugarren fasea garatuko bada, toki-erakunde horiek Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtzarekiko zorren ordaintzetan egunean ez daudenean, edo

eskualde-kontseiluen hornitzaileei ordaindu gabe dauden zorrak mekanismo horren kontura ordaindu ahal izan daitezten.

I. KAPITULUA

Azpiegituren eta garraioaren arloko arau-aldaketak

1. artikulua. *Aire Segurtasunari buruzko Legea aldatzea (21/2003 Legea, uztailaren 7koa).*

Aldatu egiten da uztailaren 7ko Aire Segurtasunari buruzko 21/2003 Legearen 92. artikulua 2. paragrafoaren c) letra. Hona nola:

«c) Defizitagatiko doikuntza. Baldin eta, 2014, 2015, 2016, 2017 eta 2018 urteetan, formula hau aplikatuta ateratzen diren emaitzak badira 2014an % 2,5, 2015ean % 4,5 eta hurrenez hurrengo hiru urteetan % 5,5, ehuneko horiek aplikatuta ateratzen dena izango da aplikatu beharreko gehienezko hazkundera, eta hurrengo bost ekitaldietan berreskuratuko da aplikatutako hazkundera errearen ondorioz ekitaldi horietan eta 2013an sorrarazitako defizita, baldin eta sorrarazi bada. Defizit metatua kapitalizatu egingo da, sortzen den unetik egiaz kobratzen den uneraino, Aena Aeropuertos, S.A. sozietatearen zerga aurreko kapitalaren batez besteko kostu haztatuaren pareko tasa baten arabera.

Baldin eta aurreko paragrafoan ezarritako epean zehar, alegia, 2014tik 2018a bitartean, formula hori aplikatuz ateratzen den urterokoren baten emaitza txikiagoa bada ezarritako gehienezko zenbatekoak baino, gehienezko zenbateko horiek aplikatu ahal izango dira Aena Aeropuertos, S.A. sozietateak ordura arte sorrarazitako defizitak berreskuratzeko.»

2. artikulua. *Trenbide Sektoreari buruzko Legea aldatzea (39/2003 Legea, azaroaren 17koa).*

Aldatu egiten da azaroaren 17ko Trenbide Sektoreari buruzko 39/2003 Legea. Hona nola:

Bat. Hona nola geratzen den idatzita 21.1. artikulua 1) letra:

«1) Trenbide-azpiegiturak erabiltzeko kanonak aldatu eta eguneratzeko proposamena, kanon horiek zehaztea eta kobratzea, eta, hala balegokio, zerbitzu gehigarri, osagarri eta lagungarrien tarifak kobratzea.»

Bi. Bigarren lerroaldea gehitzen zaio 73. artikuluko 1. paragrafoari. Hona nola:

«Sekzio honetan, kanonen esparru orokorra ezartzen da; hari esker, trenbide-azpiegituren administratzaileak aukera izango du berak administratzen duen Interes Orokorreko Trenbide Sareko linea, tarte, geltoki eta instalazioetako bakoitzean aplikatzekoak izango diren kanonak ezartzeko.»

Hiru. Hona nola geratzen diren idatzita 73. artikulua 5. eta 6. paragrafoak:

«5. Era berean, trenbide-kanonen zenbatekoa ezartzeko orduan, kontuan hartuko dira, Interes Orokorreko Trenbide Sarea eraginkortasunez ustiatzeari begira, zenbateraino buxaturik dagoen azpiegitura, zein den azpiegituraren funtzionamendu egokia, nola sustatu ahal diren trenbide-garraioko zerbitzu berriak, eta, orobat, ba ote dagoen beharrik gutxiegi erabiltzen diren lineen erabilera suspertzeko, betiere bermatuz lehia egokia izango dela trenbide-enpresen artean.

Kanonen sistemak pizgarri izan behar du trenbide-enpresentzat eta trenbide-azpiegituren administratzailearentzat berarentzat, Interes Orokorreko Trenbide Sarearen funtzionamenduan ahalik eta eragozpenik gutxien sor dadin eta haren

funtzionamendua ahalik eta onena izan dadin. Pizgarri-sistema horren oinarritzko printzipioak sare guztiari aplikatuko zaizkio. Sistema horrek aukeran izango du sarearen funtzionamendua eragozten duten ekintzak zigortzea, eragozpen horiek jasaten dituzten enpresei kalte-ordainak ematea eta aurreikusi baino emaitza hobeentzako sariak ematea.

6. Sustapen Ministerioaren agindu bidez garatu eta eguneratuko dira aurreko paragrafoetan ezarritako hobari- eta pizgarri-sistemak aplikatzeko oinarritzko printzipioak. Bereziki, eragozpenak murriztu eta funtzionamendua hobetzeko pizgarri-sistemari dagokionez, agindu horretan honako hauek ezarriko dira, gutxienez:

- a) Bidaia-denborak eta puntualtasun-tarteak kalkulatzeko prozedurak.
- b) Atzerapenen eta eragozpenen sailkapena.
- c) Atzerapenak kontatzeko eta eragozpenen erantzukizuna egozteko prozedurak.
- d) Kalkulu-aldiak.
- e) Atzerapenak eta likidazioa baloratzeko prozedurak.
- f) Gatazkak ebazteko prozedurak.
- g) Aldika sistemaren gaineko informazioa emateko betebeharrak.

Era berean, aukera izango da Sustapen Ministerioaren agindu bidez kanonen esparru orokor hori osatzen duten elementuak garatu eta osatzeko, Sustapen Ministerioaren eskumenak errespetatuz, eta, betiere, indarrean den lege-esparruaren arabera.

Hala ere, Gobernuaren Ekonomia-gaietarako Batzorde Eskuordeak txostena egin beharko du alde zuzenetik agindu horiei buruz.»

Lau. Hona nola geratzen den idatzita 77. artikulua:

«77. artikulua. *Eguneratzea.*

1. 74. eta 75. artikuluetan ezarritakotik ateratzen diren emaitzak aldatzeko edo eguneratzeko proposamena trenbide-azpiegituren administratzaileak berak egin beharko du, eta, proposamenarekin batera, finantza- eta ekonomia-memoria aurkeztu beharko du dena delako baliabidearen edo jardueraren kostuari edo balioari buruz, bai eta proposatutako zenbatekoaren justifikazioa ere, zeina, betiere, Tasa eta Prezio Publikoen Legearen 20.1 artikuluan ezarritakoari egokituko baitzaio (8/1989 Legea, apirilaren 13koa, Tasa eta Prezio Publikoena).

Proposamen horren gaineko kontsulta egin beharko dute trenbide-enpresek, bai eta txostena ere Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ere, eta kanonen parametroen balio zehatzak ezarriko dira bertan, betiere sareko linea, elementu edo aplikazio-epe bakoitzaren arabera xehakaturik.

2. Horrela lortutako emaitzak Sustapen Ministerioari igorriko zaizkio, ea kanonen esparru orokorrari eta indarrean den gainerako lege- eta eskumen-esparruari egokitzen ote zaizkion egiazta dezan, eta Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeen aurreproiektuetan sar dezan.»

Bost. Hona nola geratzen den idatzita 81. artikulua 1. paragrafoaren j) letra:

«j) Kanonen eta pizgarri-sistemaren esparru orokorra garatzea, eta trenbide-azpiegituren administratzaileak kanonei buruz egindako proposamena kanonen esparru orokorrari eta ezartzen zaizkion helburuei eta xedeei egokitzen zaiela egiaztatzea.»

Sei. Letra berria, q) letra, gehitzen zaio 89. artikuluari; p) letran zegoen testua q) letrara pasa da, eta hona nola geratzen den idatzita p) letra:

«p) Istripua gertatuz gero, trenbide-istripuen biktimei eta horien senideei laguntza emateko plana ez edukitzea —hamabigarren xedapen gehigarrian jasotzen baita edukitzeko beharra—, bai eta hura ez exekutatzea edo haren exekuzio eskasa burutzea ere, trenbide-enpresen edo trenbide-azpiegituren administratzaileen aldetik.»

Zazpi. Hona nola geratzen den idatzita 90.2 artikularen h) letra:

«h) Aurreko artikularen a) lerrokatatik p)-ra jasotako jokabideak, pertsonen, ondasunen edo trenbide-trafikoaren segurtasuna arriskutan jartzen ez bada»

Zortzi. Hamaikagarren xedapen gehigarria txertatzen da. Hona nola geratzen den idatzita:

«Hamaikagarren xedapen gehigarria. *Trenbide-istripuen Ikerketa Batzordea: osaera, funtzionamendua eta araubide juridikoa*

1. Trenbide-istripuen Ikerketa Batzordea Sustapen Ministerioari atxikitako kide anitzeko organo espezializatua da, eta trenbide-istripu zein -gertakarien ikerketa teknikoa egiteko eskumena berea da.

2. Jarduteko independentzia osoa du segurtasunaren agintaritza eskudunarekiko zein edozein trenbide-erregulatzailearekiko. Batzorderako jardunean ari direnean, langileek eta batzarreko kideek ezingo dute beste erakunde publikoren edo pribaturen baten instrukziorik eskatu edo onartu; izan ere, antolamendu, egitura juridiko zein erabakitze gaitasunari dagokionez, erabat independente baitira honakoekiko: azpiegituren administratzaile, nahasiak egon litezkeen trenbide-enpresa, tarifazio-erakunde, erakunde esleitzaille, erakunde egiaztatzaile edo jakinarazle, zein batzordeari esleitutako zereginarekin bat ez datozen interesak izan litzakeen beste edozein erakunderekiko.

3. Honakoek osatuko dute batzordea: batzordeburuak, bost kidek, haietako bat batzordeburuorde ariko dena, eta idazkari batek, hitza bai baina botorik izango ez duena.

Sustapen ministroak izendatuko ditu batzordeburua eta kideak trenbide-sektorean sona handia eta lan-gaitasun egiaztatua duten pertsonen artean, eta horretarako kontuan hartuko ditu ezaguera teknikoak, lanbide-esperientzia eta lortutako tituluak.

4. Izendapena egin aurretik, Sustapen ministroak batzordeburu eta batzordekide izateko proposatutako ena jakinaraziko dio Diputatuen Kongresuko batzorde eskudunari, bai eta haien curriculuma helaraziko ere.

Batzordeburu izateko proposatutako pertsona onartzen duen edo arrazoitutako betoa jartzen dion adierazi beharko du Diputatuen Kongresuko batzorde eskudunak, hilabete naturaleko epean, adierazitako jakinarazpena jasotzen duenetik. Diputatuen Kongresuko Batzorde horrek, epe horretan bertan, batzordeburu izateko proposatutakoa batzordearen aurrean ager dadin eska dezake, bere agintaldian zehar Trenbide-istripuen Ikerketa Batzordeak garatuko dituen jarduteko ildo nagusiak azaltzeko.

Epe hori amaitu eta Kongresuaren esanbidezko adierazpenik egon ez bada, onartutzat joko da proposamena eta hautagaia izendatuko du Sustapen ministroak.

5. Batzordeburuaren eta batzordekideen agintaldia sei urtekoa izango da, eta ezin izango da kargua berriz hartu. Bi urtetik behin batzordekideetako batzuk aldatuko dira, batzordearen funtzionamendu arauak xedatzen dituzten berritzeko irizpideekin bat. Independentziaz jardungo dute batzordekide guztiek beren zereginak burutzean.

6. Batzordekideek bere kargua utziko dute Sustapen ministroak onartutako uko egiteagatik, haien agintaldia amaitzeagatik edo Sustapen ministroak akordatutako postutik kentzeagatik; azken hori erabakitze arrazoi izan daitezke: zereginak burutzeko ezintasun iraunkorra, trenbide-zirkulazioaren segurtasunarekin

loturiko arau-hauste larri edo oso larriak egiteagatik zehapen irmoa egotea, betebeharren ez betetze larria edo dolozko delituaren ondoriozko kondena.

Kargutik kentzeko kasuetan, Sustapen ministroak Diputatuen Kongresuko batzorde eskudunari igorriko dio jakinarazpena zeinetan bereizketaren arrazoia adieraziko baitu.

7. Urteko lehen seihilekoan, memoria idatziko du Batzordeak, aurreko urtean egindako ikerketen, argitaratutako segurtasun gomendioen eta, aurretik egindako gomendioekin bat hartutako neurrien ezarpen egoerari buruz jasotako informazioaren berri emateko. Sustapen Ministeriora igorriko da memoria hori urtero eta berak helaraziko die Diputatuen Kongresuko eta Senatuko batzorde eskudunei.

8. Batzordearen ikerketa teknikari gisa ari diren karrerako funtzionarioak, batzordearenak berarenak zein hari atxikitakoak, agintaritzaz agente izango dira ikerketa zereginen ari direnean. Beren zeregina burutzen ari direnean:

a) Istripu edo gertakaria izan den lekura, horretan nahasiriko material ibiltarira eta azpiegiturarekin loturiko instalazioetara zein trafikoa kontrolatu eta seinaleztatzekoetara iristeko bidea izango dute.

b) Proben berehalako inbentarioa egin eta hondakinak, modu kontrolatuan eta zaintzapean, azpiegituraren instalazioetatik edo piezetatik kentzeari buruz erabaki ahalko dute, dagokion azterketaren ondorioetarako.

c) Trenean dauden erregistro eta grabazio ekipoetara zein bertan jasotakora iristeko bidea izango dute, bai eta erabiltzeko aukera ere, era berean, geltokietan zein, kasua denean, trafikoa kontrolatzeko zentroetako komunikazioen grabazio-erregistrora eta trafikoaren kontrol zein seinaleztapen sistemaren funtzionamenduaren erregistroarako irispidea izango dute.

d) Biktimen gorpuei egindako azterketen emaitzetara iristeko bidea izango dute, trenbide-ikerketarako adierazgarriak badira.

e) Trenean zihoazen langileen zein istripuan edo gertakarian nahasita dagoen beste edozein trenbide-langileren mediku azterketa eta analisisen emaitzetara iristeko bidea izango dute, trenbide-ikerketarako adierazgarriak badira.

f) Nahasiak dauden trenbide-langileei zein bestelako lekukoei galdeketa egin ahalko diete.

g) Azpiegituraren administratzailearen, nahasiak dauden trenbide-enpresen zein Trenbideen Zuzendaritza Nagusiaren esku dagoen edozein informazio edo agiri egokira iristeko bidea izango dute.

h) Ikertzen ari den istripuarekin zerikusia duen edozein informaziora iristeko bidea izango dute, kasu bakoitzean indarrean den aplikatu beharreko araudiarekin bat.

Lortutako informazioa ezkutukoa izango da, beraz, isilpean gorde beharko dute teknikari-ikertzaileek

9. Arau bidez garatuko dira trenbide-istripuen edo gertakarien ikerketa teknikoak egiteko arau zehatzak, Trenbide-istripuen Ikerketa Batzordearen funtzionamendurako arauak barne.»

Bederatzi. Beste xedapen gehigarri bat, hamabigarrena, txertatzen da. Hona nola geratzen den idatzita:

«Hamabigarren xedapen gehigarria. *Trenbide-istripuen ondorioak jasan dituztenei arreta integrala ematea.*

Estatuaren eskumeneko trenbide-garraioaren arloan gertatzen diren istripuen biktimek eta haien senideek eskubidea dute arreta eta laguntza egokia bermatuko dien arreta integrala izateko, Gobernuak arau bidez zehaztutakoaren arabera.

Araubidearen garapenean zehaztuko dira Trenbide Sektoreari buruzko Legeak xedatutako enpresen zein erakundeen gutxieneko betebeharrak, ekonomikoak barne, biktimei eta haien senideei dagokienez.

Nolanahi ere, Estatuaren eskumeneko trenbide-garraioaren arloan jarduten duten trenbide-konpainiek zein Interes Orokorreko Trenbide Sarearen azpiegituren administratzaileek, istripua gertatuz gero, biktimei eta haien senideei laguntza emateko plana izan beharko dute, aipatutako araubidearen garapenak zehaztutako baldintzekin bat. Sustapen Ministerioaren dagozkion zuzendaritza zentroek onartu beharko dute laguntza plan hori, beren eskumen-eremuekin bat, Barne Arazoetako Ministerioak dagozkion txostena eman ondoren.»

Hamar. Beste xedapen gehigarri berri bat, hamahirugarrena, txertatu da. Hona nola geratzen den idatzita:

«Hamahirugarren xedapen gehigarria. *Trenbide-enpresen kontabilitateari buruzko arauak.*

Urteko kontuak formulatu eta argitaratzeaz indarrean den araudiaren ondoriozko betebeharrak gorabehera, trenbide-enpresek, galera eta irabazien kontuak eta balantzeak egin eta argitaratzeko orduan, alde batetik, trenbidez egiten den salgaien garraioari dagokiona eta, bestetik, bidaiarien garraio-zerbitzuari dagokiona jaso beharko dute. Zerbitzu publikoaren erregimenari loturiko garraio-zerbitzuaren jardueratik ordaintzen diren funts publikoak aparte jaso beharko dira dagozkion kontuetan, 1370/2007 zenbakiko erregelamenduaren (EE) 7. artikulua xedatutakoarekin bat, eta ez dira beste garraio-zerbitzu edo beste edozein zerbitzuri loturiko jardueretara besterenduko.»

Hamaika. Paragrafo berri bat, 6.a, gehitu da hirugarren xedapen iragankorrean. Hona nola geratzen den idatzita:

«6. Aurreko paragrafoan aurreikusitako Sustapen ministerioaren aginduan, trenbide-enpresei aplikatuko zaizkien eskubide eta betebeharrak zehaztuko dira, hain zuzen, beraiek gaitzen dituzten tituluen indarraldian zehar aplikatzekoak, bai eta titulu horiek aldatu eta indargabetzeko aplikatuko den araubidea ere. Era berean, eta zerbitzuaren jarraipena bermatzeko xedez, administrazioak izango dituen prerrogatibak zehaztuko ditu aginduak; Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruzko testu bateginak 210. artikuluan xedatutakoen artetik hautatuko baitira, lege horretan bertan ezarritako mugak, betekizunak eta adierazitako ondorioak aintzat harturik.

Aipatu titulu horien izaerarekin bateragarri denean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginak zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuaren inguruan jasotako araubidea aplikatuko zaie subsidiarioki, hain zuzen, honakoei dagokienez: gaitzeko tituluen lizitazio deialdiari, esleipenari, exekuzioari, prestazio ekonomikoei buruz xedatutakoa izan ezik, betetzeari, ebazteko arrazoiei eta formalizazioari.»

Hamabi. Zortzigarren xedapen iragankorra txertatzen da. Hona nola geratzen den idatzita:

«Zortzigarren xedapen iragankorra. *Trenbide-istripuen Ikerketa Batzordea berritzea.*

Trenbide-istripuen Ikerketa Batzordeko burua eta kideak karguan egongo dira beren agintaldia amaitu arte, eta momentu horretan lege honen hamaikagarren xedapen gehigarrian xedatutakoa sartuko da indarrean. Ekainaren 22ko 810/2007 Errege Dekretuaz onetsitako Interes Orokorreko Trenbide-sarearen zirkulazioko segurtasunari buruzko erregelamenduaren 22.3. artikulua xedatutakoarekin bat izendatzen dira horiek.»

3. artikulua. *Estatuaren 2013rako Aurrekontu Orokorren Legea aldatzea (17/2012 Legea, abenduaren 27koa).*

Aldatu egiten da Estatuaren 2013rako Aurrekontu Orokorren Legea (17/2012 Legea, abenduaren 27koa). Hona nola:

«Estatuaren 2013rako Aurrekontu Orokorren Legearen III. eranskinean (17/2012 Legea, abenduaren 27koa) 1.684.298,00 mila euro baimendu eta izendatu dira Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF) delakoak urte horretan hitzartu behar dituen kreditu-eragiketetarako.

Baimen hori lege horren III. eranskinean bertan jasotako baldintzen arabera eman da.»

4. artikulua. *2013ko uztailaren 24an gertatutako trenbide-istripua pairatu duten pertsonen berehalako arreta emateko finantza-baliabide subsidiarioak.*

RENFE-Operadora enpresa-erakunde publikoak, legez dagozkion kasuetan eta baldintzen arabera, aukeran izango du kalte-ordainerako eskubidea duten pertsonen berehalako beharrian ekonomikoei erantzuteko behar diren diru-zenbatekoak ordaintzea, aseguru-entitateak bidaiarien nahitaezko aseguruagatik ordaindutakoez gain edo erantzukizun zibilagatik kontura aurreratutakoez gain. Hala bada, RENFE-Operadorak diru-zenbateko horiek aplikatzen baditu, pertsona horiei aitortu zaizkien kalte-ordainen kontura egindako aurrerapentzat joko dira, eta horrek ez dakar berekin ez eskubideari buruz ez eta kalte-ordainei buruz ezer erabakitzea, ez eta ondare-erantzukizuna aitortzea ere.

II. KAPITULUA

Lanaldi partzialeko babes sozialaren arloko aldaketak

5. artikulua. *Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina aldatzea (1/1994 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa).*

Aldatu egiten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren zazpigarren xedapen gehigarria (1/1994 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa). Hona nola:

Bat. 1. paragrafoaren bigarren araua honela geratzen da idatzita:

«Bigarrena. *Kotizazio-aldiak.*

Erretiro, ezintasun iraunkor, heriotza eta bizirik iraute,aldi baterako ezintasun eta amatasunari eta aitatasunari dagozkion prestazioak jasotzeko eskubidea izateko behar diren kotizazio-aldiak egiaztatzeko, honako arau hauek aplikatuko dira:

a) Kontuan hartuko dira langilea lanaldi partzialeko kontratu batekin altan egondako epeak, epe horietako bakoitzean lanaldiaren iraupena edozein izanda ere.

Horretarako, partzialtasunaren koefizientea aplikatuko zaio lanaldi partzialeko kontratuarekin altan egondako epeari, eta horren emaitza izango da epe bakoitzean egiaz kotizatutzat jotzen diren egunen kopurua. Partzialtasun-koefizientea izango da langile batek lanaldi osoan egiten duen lanaldiaren aldean lanaldi-partzialean egiten den lanaldiaren ehunekoa, betiere konparagarriak izanik bata eta bestea.

Horrela ateratzen diren egunen kopuruari lanaldi osoan kotizatutako egunak gehituko zaizkio, hala balegokio, eta horrela ateratzen den emaitza izango da prestazioak eskuratu ahal izateko kontatu ahal diren kotizazio-egun egiaztatuen guztirako kopurua.

b) Behin kotizatutako egun egiaztatuen kopurua horrela zehazturik, guztirako partzialtasun-koefiziente kalkulatu da, eta ehuneko horrek adieraziko du zein den lan egindako egun kotizatutzat egiaztatuen kopurua –aurreko a) letran adierazitakoaren arabera– langileak lan-bizitza osoan zehar altan egindako guztirako egunen artetik. Lanerako aldi baterako ezintasunaren subsidioaz den bezainbatean, guztirako partzialtasun-koefizientea azken bost urteen gainean kalkulatu da. Amatasun- eta aitatasun-subsidioaz ari garenean, guztirako partzialtasun-koefizientea azken zazpi urteen gainean kalkulatu da, edo, hala balegokio, lan-bizitza osoaren gainean.

c) Lanaldi partzialeko langileei prestazio ekonomikoetarako eskatuko zaien gutxieneko kotizazio-epea, prestazioek halakorik ezarrita dutenean, honako hau izango da: kasu guztietarako ezarrita dagoen epeari b) letran aipatzen den partzialtasun-koefizientea aplikatuz ateratzen den emaitza.

Dena delako prestazio ekonomikoa eskuratzeko baldintzatzat ezartzen bada gutxieneko kotizazio-epearen zati bat edo osoa epe jakin baten barruan bete dadila, partzialtasun-koefiziente globala aplikatuko da dena delako kotizazio-epea finkatzeko. Eskatzen den epe hori, dena delako prestaziorako orokortasunez ezarritako denbora-tartean sartuta egon beharko da.»

Bi. Hona nola geratzen den idatzita 1. paragrafoko hirugarren arauaren c) lerrokada:

«c) Jubilazio-pentsioen eta gaixotasun arruntaren ondoriozko ezintasun iraunkorren pensioen zenbatekoa finkatze aldera, bigarren arauko a) letraren bigarren lerrokadan ezarritakotik ondorioztatzen diren kotizazio-egunen kopurua 1,5 koefizientea aplikatuz gehituko da, eta horrela ateratzen den egun-kopurua ezin da izan lanaldi partzialeko altako epea baino handiagoa.

Dena delako oinarri arautzaileari aplikatuko zaion ehunekoa 163. artikulua 1. paragrafoan eta hogeita batgarren xedapen iragankorrean aipatzen den eskala orokorren arabera ezarriko da, honako salbuespen honekin:

Baldin eta interesatuak hamabost urte baino kotizazio-epe txikiagoa egiaztatzen badu, lanaldi osoko egunak eta lanaldi partzialeko egunak —1,5 koefizientea aplikatu ondoren— batuta ateratzen den emaitza aintzat harturik, dagokion oinarri arautzaileari aplikatuko zaion ehunekoa honako hau izango da: hamabost urteko aldian langileak egiaztatutako kotizazio-epeak dakarren ehunekoa 50i aplikatuz ateratzen den emaitza.»

III. KAPITULUA

Enpleguaren eta langabezia-babesaren arloko aldaketak

6. artikulua. *Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina aldatzea (1/1994 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa).*

Aldatu egiten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina (1/1994 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa):

Bat. Letra berria, e), gehitu zaio 207. artikuluari. Hona nola geratzen den idatzita:

«e) Dagokion enplegu-zerbitzu publikoan lan-eskatzaile gisa izena emanda egotea.»

Bi. Hona nola geratzen den idatzita 209. artikulua izenburua eta 1. paragrafoa:

«209. artikulua. *Prestazioetarako eskubidea eskatzea, sortzea eta iraunaraztea.*

1. Lege honetako 207. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonak erakunde kudeatzaile eskudunari eskatu beharko diote onar dezala

legezko langabezia-egoera gertatuz gero sortuko den prestazioetarako eskubidea, betiere hurrengo hamabost eguneko epearen barruan egiten bada prestaziorako eskaria. Eskaria egiteko baldintza izango da enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egotea. Era berean, eskaria egiten den egunean, lege honen 231. artikulua aipatzen duen jarduerarekiko konpromisoa sinatu beharko da.

Enplegu-eskatzaille gisa izena emanda jarraitu beharko da prestazio-aldiak irauten duen denbora guztian, prestazioa jasotzen jarraitzeko ezinbesteko baldintza baita; gainera, prestazioaren ordainketa eten egingo da, baldintza hori bete ezean, Lege honetako 212. artikuluan ezarritakoaren arabera.»

Hiru. 212. artikuluen 1. paragrafoari f) eta g) letrak gehitzen zaizkio. Hona nola geratzen diren idatzita:

«f) Onuradunak egoitza atzerrira aldatzen duenean adierazten badu lana bilatzeko edo lana egitera joateko dela, edo lanbide-hobekuntza egitera edo nazioarteko lankidetzan aritzera joateko dela, eta hamabi hilabete jarraitu baino epe motzagarako bada, betiere alde aurretik hala jakinarazi bada eta erakunde kudeatzaileak baimena eman badu; hori, ordea, ez da eragozpen izango Europar Batasuneko arauetan prestazioak esportatzeari buruz ezarritakoa aplikatzeko.

g) Urtean gehienez 90 egunez (jarraituak edo ez) atzerrira egonaldia egitera joateko kasuetan, betiere alde aurretik jakinarazi bada eta erakunde kudeatzaileak baimena eman badu.

Ez da egonaldizat ez eta egoitza aldaketatzat joko atzerrira ateratzea urte bakoitzean behin eta 15 egun baino gutxiagorako, hargatik eragotzi gabe 231.1 artikuluan ezarritako betebeharrak betetzea.»

Lau. Aldatu egiten da 212. artikuluen 3. paragrafoa. Hona nola geratzen den idatzita:

«3. Prestazioen onuradunek ez badute betetzen eskatutako dokumentuak ezarritako epeetan aurkezteko betebeharra, betiere dokumentuok prestazioetarako eskubideari eusteko ezinbestekoak badira, prebentzio-neurriak hartu ahal izango ditu erakunde kudeatzaileak, hala behar bada; horrela bada, prestazio horiek ordaintzea eten ahal izango du, harik eta onuradunek eskubideari eusteko ezarritako legezko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu arte haren aurrean; hori egin ondoren berrekingo zaio prestazioari.

Era berean, erakunde kudeatzaileak eten egingo du prestazioen ordainketa, baldin eta onuraduna enplegu-zerbitzu publikoan izena eman gabe badago (hau da, izena eman gabe dagoen aldi horietako ordainketa), eta berriz hasiko da ordaintzen hark berriz ere izena ematen duenetik aurrera, betiere erakunde kudeatzailearen aurrera agertzen bada izena eman duela egiaztatzen, non eta arau honetan edo beste batean aurreikusitako kausengatik prestazioa eteten edo azkenarazten ez duen.»

Bost. Aldatu egiten da 212. artikuluko 4. paragrafoaren b) letraren 1. lerroaldea. Hona nola:

«b) Interesdunak eskatuta, 1. paragrafoko b), c), d), e), f) eta g) letratan jasoriko kasuetan, baldin eta egiaztatzen bada: amaitu dela etetea eragin duen kausa; hala badagokio, kausa horrek legezko langabezia-egoera dakarrela; edo, hala badagokio, artean ere betetzen direla errentarik ez izateko baldintza edo familia-erantzukizunak izateko baldintza. Artikuluko 1. paragrafoko d) letrak adierazten duen egoeran, norberaren konturako langileak hogeita hamar urte baino gutxiago izan eta lehendabiziko alta hartzen duenean Norberaren konturako Langileen edo Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian edo Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian, langabezia-prestazioa berriz

has daiteke norberaren konturako lana hirurogei hilabetekoa baino laburragoa bada.»

Sei. Aldatu egiten da 213. artikuluko 1. paragrafoko g) letra. Hona nola geratzen den idatzita:

«g) Bizilekua edo egoitza atzerrira aldatzea, non eta ez diren 212.1 artikuluan f) eta g) letretan jasotako etete-kausak.»

Zazpi. Beste paragrafo bat, 4.a, gehitzen zaio 215. artikuluari. Hona nola geratzen den idatzita:

«4. Lehenbiziko paragrafoan ezarritako subsidio-modalitate guztietan, baldintza izango da enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea eta hala jarraitzea, lege honetako 207 e) artikuluan eta 209.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera.»

Zortzi. Aldatu egiten da 231. artikuluko 1. paragrafoko h) letra. Hona nola:

«h) Enplegu-eskatzaile gisa izena ematea, izena emanda jarraitzea eta jarduera-konpromisoari buruzko baldintzak betetzea, Enpleguaren Legeak 27. artikuluan ezarritako baldintzen arabera (56/2003 Legea, abenduaren 16koa).»

Bederatzi. Aldatu egiten da 233. artikuluan c) letra. Hona nola geratzen den idatzita:

«c) Langileei Lan-arloko arau-hauste eta zigorrei buruzko Legearen testu bateginaren 48.5 artikuluan ezarritakoaren arabera zigorrak ezartzeari buruzkoak.»

7. artikulua. *Enpleguari buruzko Legea aldatzea (56/2003 Legea, abenduaren 16koa).*

Aldatu egiten da Enpleguari buruzko Legearen 27. artikuluko 4. paragrafoa (56/2003 Legea, abenduaren 16koa). Hona nola:

«4. Lan-zerbitzu publikoetan izena emandako langabezia-prestazioen eta -subsidioen onuradunek, behin jarduera-konpromisoa hartu ondoren, laneratzeko ibilbidean erabakitako lan-politika aktiboetan parte hartu beharko dute, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 231.1 artikuluan azken lerrokadan xedatutakoa gorabehera. Enplegu-zerbitzu publiko eskudunek egiaztatuko dute ezen langabezia-prestazioen eta -subsidioen onuradunek betetzen dituztela jarduera-konpromisoaren ondoriozko betebeharrak, eta, zigorrik ezarri bazaie, jakinarazi egin beharko diote Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari edo Itsasoko Gizarte Institutuari, hala dagokionean, ezartzen zaien unean, hark zigorra betearaz dezan.

Enplegu-zerbitzu publiko eskudunek, halaber, egiaztatuko dute ezen onuradun horiek betetzen dutela enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egoteko betebeharra, eta Estatuko Enplegu Publikoaren Zerbitzuari edo Itsasoko Gizarte Institutuari, hala balegokio, jakinarazi beharko dizkiote betebeharrak horren hutsegiteak, gertatzen diren unean edo ezagutzen dituzten unean. Jakinarazpen hori baliabide elektronikoz egin dezakete, eta dokumentu nahikoa izango da Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak edo Itsasoko Gizarte Institutuak, hala balegokio, egoki den zehapen-prozedura abiaraz dezan.»

8. artikulua. *Lan-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legearen testu bategina aldatzea (5/2000 Legegintzako Errege Dekretua, abuztuaren 4koa).*

Aldatu egiten da Lan-arloko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legearen testu bategina (5/2000 Legegintzako Errege Dekretua, abuztuaren 4koa). Hona nola:

Bat. Aldatu egiten da 22. artikulua 13. paragrafoa. Hona nola geratzen den idatzita:

«13. Ez bazaizkio langabezia-prestazioaren erakunde kudeatzaileari jakinarazten, eraginkor izaten hasi aurretik, kaleratze kolektiboko neurriak edo lanaldia eteteko edo murrizteko neurriak erregelamenduz ezarritako moduan eta edukiarekin, eta ez bazaizkio jakinarazten, gertatu aurretik, hasieran xedatutako egutegian egiten diren aldaketak, langile bakoitzaren arabera lanaldia eteteari edo murrizteari buruz xeheki egiten direnak, eta, neurriak lanaldia murrizteari buruzkoak direnean, ez bada jakinarazten, orobat, lanaldi murrizketaren osteko lan-ordutegia.»

Bi. Aldatu egiten dira, 24. artikuluan, 3. paragrafoaren a) eta d) letrak, eta beste paragrafo bat erantsen zaio, 4.a. Hona nola geratzen den idatzita:

«a) Ez agertzea, errekerimendua egin ostean, enplegu-zerbitzu publikoen aurrera edo enplegu-agentzien aurrera, haiekiko lankidetzaren esparruan jarduerak gauzatzen dituztenean, non eta ez den kausa justifikatu bat tarteko.»

«d) Ez ematea enplegu-zerbitzu publikoei haren jakinarazpenak eta mezuak jasoko direla bermatzeko behar den informazioa.

Bitarteko elektronikoen bidezko zitazioak edo mezuak jakinarazpenetarako baliodun direla joko da, betiere langileek alde aurretik beren adostasuna agertu badute.»

«4. Langabezia-prestazio kontribuziozko edo asistentzialen eskatzaile edo onuradunen kasuan, prestazio horiek kudeatzen dituzten erakundeek aldera huts hauek egitea:

a) Ez ematea haien jakinarazpenak eta mezuak jasoko direla bermatzeko behar den informazioa.

Bitarteko elektronikoen bidezko zitazioak edo mezuak jakinarazpenetarako baliodun direla joko da, betiere langileek alde aurretik beren adostasuna agertzen badute.

b) Prestazioa jasotzen jarraitzeko baldintza izanik, izena eman gabe egotea enplegu-eskatzaile gisa Gizarte Segurantzaren Legearen testu bateginaren 209.1 eta 215.4 artikuluetan ezarritako baldintzen arabera, non eta ez den horretarako kausa justifikaturik tarteko.»

Hiru. Aldatu egiten da 25. artikulua 3. paragrafoa. Hona nola geratzen den idatzita:

«3. Ez jakinaraztea, non eta ez dagoen horretarako kausa justifikaturik, prestazioetako bajak, eskubidea etetea edo azkentzea eragiten duten egoerak sortzen diren unean; edo prestazioak jasotzeko eskubidea izateko bete behar diren baldintzak betetzeari utzi zaionean, kausa horietako batengatik prestazioa bidegabeki jasotzeagatik. Betiere, jokabide hori ez badago tipifikatuta arau-hauste arin gisa lege honetako 24.4.b) artikuluan.»

Lau. Hona nola geratzen diren idatzita 47. artikulua 1. paragrafoaren a) letraren lehen lerroa eta c) letra, eta 4. paragrafoa:

«a) Arau-hauste arinagatik, galdu egingo da pentsioa edo prestazioa, hilabete batez. Langabezia-prestazio kontribuziozko edo asistentzialaz den bezainbestean, 24. artikulua 2., 3. eta 4. paragrafoetan tipifikatutako arau-hauste arinak zehatu egingo dira, hemengo eskala honen arabera:

1. arau-haustea. Prestazioak hilabetez galtzea.
2. arau-haustea. Prestazioak 3 hilabetez galtzea.

3. arau-haustea. Prestazioak 6 hilabetez galtzea.
4. arau-haustea. Prestazioak azkentzea.»

«c) Arau-hauste oso larriagatik, pentsioa edo prestazioa sei hilabetez galtzea, eta langabezia-prestazioen edo -subsidioen edo langile autonomoaren jarduera uztearen prestazioaren kasuan, prestazioa azkentzea.

Halaber, aukeran izango da edozein diru-prestazio jasotzeko eskubidea kentzea urtebetez, eta, hala balegokio, enplegua sustatzeko laguntza, bai eta epe horretan enplegurako lanbide-hezkuntzan parte hartzeko eskubidea ere.»

«4. Azpisekzio honetan aurreikusitako arau-hausteen zehapenak lege honetako 48.4 eta 5. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera ezarriko dira, organo zehatzailearen eskumena errespetatuz eta ezarritako zehapena betearazteko behar den lankidetzaren bidez, baldin eta beste organo baten eskumenekoa bada zehapen hori betearaztea.»

Bost. Hona nola gelditzen den idatzita 48. artikulua 5. paragrafoa:

«5. Gizarte Segurantza eta Laneko Ikuskaritzak proposatuta Gizarte Segurantzako arau-hausteengatik langileei zehapenak ezartzea Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaile edo zerbitzu erkide horretarako eskudunari dagokio. Langabezia-prestazio kontribuziozko edo asistentzialen eskatzaile edo onuradunek egindako arau-hausteen kasuan, prestazio horiek kudeatzen dituen erakundeari dagokio eskumena, lege honen 24.3 eta 25.4 artikuluetan jasotako arau-hausteen kasuetan izan ezik, halakoetan zehatzeko eskumena enplegu-zerbitzu publiko eskudunari baitagokio, eta hark langabezia-prestazioaren erakunde kudeatzaileari jakinaraziko dio zehapena, ezartzen duen unean, betearaz dezan.»

IV. KAPITULUA

Lan-arloko aldaketak

9. artikulua. *Langileen Estatutuko Legearen testu bategina aldatzea (1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 24koa).*

Aldatu egiten da Langileen Estatutuko Legearen testu bategina (1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 24koa). Hona nola geratzen den idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 40. artikulua 2. paragrafoa. Hona nola geratzen den idatzita:

«2. Aurreko paragrafoan aipatutako lantoki-aldaketa egin aurretik, enpresak langileen legezko ordezkariekin hitz egin beharko du gai horri buruz, hamabost egun baino gehiagokoa ez den aldi batean, baldin eta lantoki osoari eragiten badio eta lantokiak bost langile baino gehiago baditu; edo, laurogeita hamar eguneko epe batez, lantoki osoari eragin ez arren, langile kopurua, gutxienez, honenbestekoa bada:

- a) Ehun langiletik beherako enpresetan, hamar langileri.
- b) Ehun eta hirurehun langile arteko enpresetan, langileen % 10i.
- c) Hirurehun langiletik gorako enpresetan, hogeita hamar langileri.

Kontsulta-aldi horretan, enpresaren erabakia eragin duten kausak aztertu behar dira, baita ondorioak saihestu edo gutxitzeko aukerarik dagoen ere, eta langileei dakartzkien eraginak biguntzeko zer neurri behar diren ere bai. Kontsulta hori negoziazio-batzorde bakar batean egingo da, eta, hainbat lantoki izanez gero, prozedurak eragiten dien lantokietan baizik ez da egingo. Negociazio-batzordeak hamahiru kide izango ditu gehienez, alderdietako bakoitzaren ordezkari gisa.

Kontsulta-prozeduran enpresa-zuzendaritzaren solaskide izatea 41.4 artikuluan aipatzen diren subjektuei dagokie, artikulu horretan bertan ezarritako hurrenkeraren eta baldintzen arabera.

Enpresak kontsulta-prozeduraren hasiera iragartzeko mezua bidali aurretik eratu beharko da langileen ordezkari-tzatzatza-batzordea. Horretarako, enpresa-zuzendaritzak fede emateko moduan jakinarazi beharko die langileei edo haien ordezkari-iei prozedura hasteko asmoa. Ordezkari-tzatzatza-batzordea eratzeko gehienezko epea zazpi egun izango da, jakinarazpen hori igortzen denetik hasita; hala ere, prozedura honek lantokiren bati eragin eta hark ez badauka legezko ordezkari-rik, epea hamabost egun izango da.

Behin ordezkari-tzatzatza-batzordea eratzeko gehienezko epea igarota, enpresa-zuzendaritzak kontsulta-aldia hasteko epearen hasiera jakinarazi ahal izango die langileen ordezkari-iei. Ordezkari-tzatzatza-batzordea eratu ezean, ez da eragozpen izango kontsulta-aldia hasteko eta garatzeko, eta behin kontsulta-aldia hasi eta gero eratzten bada, horrek, berez, ez dakar kontsulta-aldiaren iraupena luzatzea, inondik ere ez.

Lan-agintari-tzari jakinaraziko zaio, jakin dezan, kontsulta-aldia hasi dela; orobat, hura amaitzean, zer jarrera izan duten alderdiek.

Kontsulta-aldian, fede onez negoziatu behar dute alderdiek, akordio bat lortzeko helburuarekin. Akordio horrek langileen legezko ordezkari-ien gehiengoaren adostasuna beharko du, edo, hala balegokio, langileen ordezkari-tzatzatza-batzordeko kideen gehiengoarena, eta, betiere, bai kasu batean, bai bestean, prozeduraren peko lantokiko edo lantokietako langileen gehiengo-ak ordezkatu behar dute.

Kontsulta-aldia amaitu eta gero, enpresaburuak lantoki-aldaketari buruz hartutako erabakia jakinarazi behar die langileei; lantoki-aldaketa artikuluko honetako 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera egingo da, ondorio guztietarako.

Paragrafo honetan aipatutako erabakien kontra gatazka kolektibo-ak eragin daiteke, eta artikuluko honetako 1. paragrafoan xedatutako bakarkako akzio-ak ere gauza daitezke. Gatazka kolektibo-ak eragiten denean, gelditu egingo dira bakarka hasitako akzio-ien izapide-ak, harik eta hura erabaki arte.

Kontsulta-aldian langileen legezko ordezkari-ekin akordio-ak lortuta ere, langileek eskubide-ak izango dute artikuluko honetako 1. paragrafo-ko hirugarren lerroal-dean aurreikusitako aukeraz baliatze-ko.

Enpresaburu-ak eta langileen legezko ordezkari-ek edonoiz erabaki ahalko dute paragrafo honetan aipatzen den kontsulta-aldiaren ordezkari-aren esparruan aplikatze-ko den bitartekotza edo arbitraje-prozedura aplikatze-ak; kasu horretan, kontsulta-aldi horretarako xedatutako gehienezko epearen barruan gauzatu beharko da bitartekotza edo arbitraje-ak.»

Bi. Aldatu egiten da 41. artikuluko 4. paragrafo-ak. Hona nola geratzen den idatzita:

«4. Lan-baldintza kolektiboetan funtsezko aldaketak egiteko erabakia hartu baino lehen langileek dena delako enpresan legezko ordezkari-rik baldin badute, gaia ordezkari horiekin kontsultatze-ko epe bat zabaldu beharko da, gehienez ere hamabost egunekoa –nahiz eta negoziazio kolektiboan beste prozedura espezifiko batzuk ere abiaraz daitezkeen–. Kontsulta-aldi horretan, enpresak erabaki hori zergatik hartu duen, ondorio-ak saihestu edo leundu ote daitezkeen, eta kalteturik gertatzen diren langileen artean ondorio-ak leuntze-ko zein neurri har daitezkeen aztertuko dute. Kontsulta hori negoziazio-batzorde bakar batean egingo da, eta, hainbat lantoki izanez gero, prozedurak eragiten dien lantokietan baizik ez da egingo. Negociazio-batzorde-ak hamahiru kide izango ditu gehienez, alderdietako bakoitzaren ordezkari gisa.

Kontsulta-prozeduran enpresa-zuzendaritzaren solaskide gisa parte hartzea sindikatu-sekzio-iei dagokie, haiek hala erabakitzen badute, betiere prozeduraren peko lantokietako enpresa-batzordeetan edo langile-ordezkari-ien artean

ordezkaritzaren gehiengoa badute; hala bada, prozeduraren peko lantokietako langile guztien ordezkariak izango dute.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ezean, solaskide gisa parte hartzeko honako arau hauek beteko dira:

a) Prozedurak lantoki bakarrari eragiten badio, enpresa-batzordea edo langileen ordezkariak izango dira solaskide. Lantokian ez badago langileen legezko ordezkariarik, langileek bi aukera izango dituzte akordioa negoziatzeko orduan: ordezkariak-batzorde baten esku utz dezakete, gehienez ere hiru kidek osatuko dutelarik, hirurak ere enpresako langileek beren artean demokrazia-legez hautatutako langileak; edo, bestela, batzorde baten esku utz dezakete, batzorde hori hiru kidek osatuko dutelarik, ordezkariak handiena duten sindikatuek hautaturik, sindikatuok enpresaren sektorekoak direlarik, betiere enpresari aplikatzekoa zaion hitzarmeneko negoziazio-batzordea osatzeko legitimazioa badute.

Negoziazioa sindikatuek izendaturiko batzordearekin egin behar baldin bada, enpresaburuak, enpresaburu-elkarte bateko edo batzuetako kide bada, haien esku utzi ahal izango du bere ordezkariak. Enpresaburu-elkarte horiek autonomia-erkidegoan ordezkariak nagusia dutenak izan daitezke, eta berdin dio sektoreartekoak edo sektorekoak diren.

b) Prozedurak lantoki bati baino gehiagori eragiten badio, honako hauei dagokie solaskide izatea:

Lehenik eta behin, lantoki arteko batzordeari, betiere eginkizun hori esleitu bazaio hura sortzea erabaki zen hitzarmen kolektiboan.

Osterantzean, ordezkariak-batzorde bati, zeina honako arau hauei jarraituz eratuko baita:

1.a Baldin prozeduraren peko lantoki guztiek badauzkate langileen legezko ordezkariak, ordezkari horiek izango ditu batzordeak kide.

2.a Prozeduraren eraginpeko lantokietako batek langileen legezko ordezkariak badauzka eta beste batzuek ez, ordezkari horiek dauzkaten lantokietako langileen legezko ordezkariak bakarrik izango dira batzordeko kide. Hala izango da, salbu eta langileen legezko ordezkariarik ez dauzkaten lantokietako langileek erabakitzen badute a) paragrafoak aipatzen duen batzordea izendatzea, zeren eta, hala egiten badute, langileen legezko ordezkariak eta paragrafo horretan aipatzen diren batzordeetako kideek osatuko baitute ordezkariak-batzordea, ordezkariak dituzten langileen kopuruarekiko proportzioan.

Prozeduraren peko lantoki langileen legezko ordezkariarik gabekoen arteko batek edo hainbatek hautatzen badute a) paragrafoko batzordea ez izendatzea, langileen legezko ordezkariak dauzkaten lantokietako langileen legezko ordezkariak emango zaie ordezkariak hori; zenbat langile ordezkariak dituzten, halakoxe proportzioan.

3.a Prozeduraren peko lantokietako batek ere ez badauka langileen legezko ordezkariarik, prozeduraren peko lantokietan a) paragrafoan xedatutakoaren arabera izendatutako batzordeetako kideek euren artean hautatuek osatuko dute ordezkariak-batzordea; zenbat langile ordezkariak dituzten, proportzio horren arabera.

Paragrafo honetan jasotzen diren kasu guztietan, lehen adierazitako arauak aplikatuz ordezkariak hasierako kopurua hamahiru baino gehiago bada, haiek hamahiru kide hautatuko dituzte, gehienez, beren artean; zenbat langile ordezkariak dituzten, halakoxe proportzioan.

Enpresak kontsulta-prozeduraren hasiera iragartzeko mezua bidali aurretik eratu beharko da langileen ordezkariak-batzordea. Horretarako, enpresazuzendaritzak fede emateko eran jakinarazi beharko die bere langileei edo haien ordezkariak lan-baldintzetan funtsezko aldaketak egiteko prozedura hasteko duten

asmoa. Ordezkaritza-batzordea eratzeko gehienezko epea zazpi egun izango da, jakinarazpen hori igortzen denetik hasita; hala ere, prozedura honek lantokiren bati eragin eta ez badauka legezko ordezkariarik, epea hamabost egun izango da.

Behin ordezkari-tza-batzordea eratzeko gehienezko epea igarota, enpresa-zuzendaritzak kontsulta-aldia hasteko epearen hasiera jakinarazi ahalko die langileen ordezkariari. Ordezkaritza-batzordea eratu ezean, ez da eragozpen izango kontsulta-aldia hasteko eta garatzeko, eta behin kontsulta-aldia hasi eta gero eratzten bada, horrek, berez, ez dakar kontsulta-aldiaren iraupena luzatzea, inondik ere ez.

Kontsulta-aldian, fede onez negoziatu behar dute alderdiek, akordio bat lortzeko helburuarekin. Akordio horrek langileen legezko ordezkarien gehiengoaren adostasuna beharko du, edo, hala balegokio, langileen ordezkari-tza-batzordeko kideen gehiengoarena, eta, betiere, bai kasu batean, bai bestean, prozeduraren peko lantokiko edo lantokietako langileen gehiengoa ordezkatu behar dute.

Enpresaburuak eta langileen legezko ordezkariak edonoiz erabaki ahalko dute kontsulta-aldiaren ordezkariaren esparruan aplikatzekoa den bitartekotza- edo arbitraje-prozedura aplikatzea; kasu horretan, aldi horretarako xedatutako gehienezko epearen barruan gauzatu beharko da bitartekotza edo arbitrajea.

Kontsulta-aldia amaitu eta akordioa lortzen bada, presuntzioa izango da tartean izan direla 1. paragrafoan aipatzen diren kausa justifikagarriak, eta akordioa lortzean iruzurra, doloa, hertsapena edo eskubide-abusua izan delako baizik ezingo da jo akordioaren aurka jurisdikzio eskudunaren aurrean. Edonola ere, langileek eskubidea izango dute artikuluko honetako 3. paragrafoko bigarren lerrokadan aurreikusitako aukeraz baliatzeko.»

Hiru. Aldatu egiten da 47. artikuluko 1. paragrafoa. Hona nola geratzen den idatzita:

«1. Enpresaburuak aukeran izango du lan-kontratua etetea kausa ekonomiazko, tekniko, antolakuntzazko edo produkziozkoak tarteko, artikuluko honetan xedatutakoaren arabera eta erregelamenduz xedatutakoaren arabera.

Ekonomiazko kausak tarteko direla joko da enpresaren emaitzetatik ondorioztatzen denean egoera ekonomikoa txarra dela, hala nola galerak izan dituztenean edo aurreikusten direnean, edo enpresaren diru-sarrera arruntak edo salmentak era iraunkorrean gutxitzen direnean. Gutxitzea iraunkorra dela joko da, baldin eta, bi hiru hileko jarraian, hiru hileko bakoitzeko diru-sarrera arruntak edo salmenten maila aurreko urteko hiru hileko berean erregistratutakoa baino txikiagoa bada.

Kausa teknikoak tartean direla joko da, baldin eta aldaketak gertatzen badira, besteak beste, ekoizteko bitarteko edo tresnen alorrean. Antolakuntzazko kausak gertatuko dira, baldin eta aldaketak gertatzen badira, besteak beste, langileen lan-sisteman edo -metodoetan, edo produkzioa antolatzeko moduan. Eta produkziozko kausak gertatuko dira, baldin eta aldaketak gertatzen badira, besteak beste, enpresak merkatuan sartu nahi dituen produktuen edo zerbitzuen eskarian.

Prozedura aplikagarria izango da edozein direla ere enpresaren langile-kopurua eta kontratua etengo zaien kopurua. Prozedura hasiko da lan-agintaritza eskudunari jakinarazpena eginez eta, aldi berean, langileen legezko ordezkariaren kontsulta-aldia abiaraziz, gehienez ere hamabost eguneko.

Kontsulta hori negoziazio-batzorde bakar batean egingo da, eta, hainbat lantoki izanez gero, prozedurak eragiten dien lantokietan baizik ez da egingo. Negoziazio-batzordeak hamahiru kide izango ditu gehienez, alderdietako bakoitzaren ordezkari gisa.

Kontsulta-prozeduran enpresa-zuzendaritzaren solaskide izatea 41.4 artikuluan aipatzen diren subjektuei dagokie, artikuluko horretan bertan ezarritako hurrenkeraren eta baldintzen arabera.

Enpresariak kontsulta-aldiaren hasiera jakinarazi baino lehen eratu beharko da langileen ordezkari-tza-batzordea. Horretarako, enpresa-zuzendaritzak fede emateko moduan jakinarazi beharko die langileei edo haien ordezkari prozedura hasteko asmoa. Ordezkari-tza-batzordea eratzeko gehienezko epea zazpi egun izango da, jakinarazpen hori igortzen denetik hasita; hala ere, prozedura honek lantokiren bati eragin eta hark ez badauka legezko ordezkari-rik, epea hamabost egun izango da.

Ordezkari-tza-batzordea eratzeko gehienezko epea igarotakoan, enpresa-batzordeak formaz dagokion eran jakinarazi ahal izango die langileen ordezkari eta lan-agintaritzari kontsulta-aldiaren hasiera. Ordezkari-tza-batzordea eratu ezean, ez da eragozpen izango kontsulta-aldia hasteko eta garatzeko, eta behin kontsulta-aldia hasi eta gero eratzten bada, horrek, berez, ez dakar kontsulta-aldiaren iraupena luzatzea, inondik ere ez.

Lan-agintaritzak enpresaren jakinarazpenaren berri emango dio langabezia-prestazioak kudeatzen dituen erakundeari, eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaile-tzaren nahitaezko txostena eskatuko du, jakinarazpenaren edukari buruz eta kontsulta-aldiaren nondik norakoei buruz. Lan-agintaritzari kontsulta-aldia amaitu dela jakinarazten zaionetik hamabost eguneko epean eman beharko da txostena, eta epe hori ezingo da luzatu. Txostena prozeduran txertatuko da.

Kontsulta-aldian akordioa lortzen bada, presuntzioa egingo da tartean izan direla lehenbiziko paragrafoak aipatzen dituen kausa justifikagarriak, eta akordioa lortzeko orduan iruzurra, doloa, hertsapena edo eskubide-abusua tartean izan direnean baizik ezingo da haren aurka jo jurisdikzio eskudunean.

Kontsulta-aldian, fede onez negoziatu behar dute alderdiek, akordio bat lortzeko helburuarekin. Akordio horrek langileen legezko ordezkarien gehiengoaren adostasuna beharko du, edo, hala balegokio, langileen ordezkari-tza-batzordeko kideen gehiengoarena, eta, betiere, bai kasu batean, bai bestean, prozeduraren peko lantokiko edo lantokietako langileen gehiengoa ordezkatu behar dute.

Enpresaburuak eta langileen legezko ordezkari-ek edonoiz erabaki ahalko dute kontsulta-aldiaren ordezkari-aren esparruan aplikatzekoa den bitartekotza- edo arbitraje-prozedura aplikatzea; kasu horretan, aldi horretarako xedatutako gehienezko epearen barruan gauzatu beharko da bitartekotza edo arbitrajea.

Kontsulta-aldia amaitu ondoren, enpresaburuak kontratuak eteteari buruz hartu duen erabakia jakinaraziko die langileei eta lan-agintaritzari; lan-agintaritzari jakinarazpena egiten zaionetik hasiko da ondorioak izaten erabaki hori, non eta erabakiak berak ez duen beste egun bat ezartzen. Lan-agintaritzak langabezia-prestazioa kudeatzen duen erakundeari jakinaraziko dio enpresaburuaren erabakia.

Baldin eta kontsulta-aldian egindako azken bileratik hasita hamabost eguneko epean enpresaburuak ez badie langileen ordezkari eta lan-agintaritzari kontratuak eteteari buruzko bere erabakia jakinarazi, prozedura iraungi egingo da, erregelamenduz ezarritako eran.

Lan-agintaritzak enpresaburuaren erabakia aurkaratu ahal izango du langabezia-prestazioa kudeatzen duen erakundeak hala eskatzen dionean, baldin eta erabakiaren xedea izan badaiteke langileek, legezko langabezia-egoera eragiten duen kausarik ez egoteagatik, bidegabeki eskuratzea prestazioak.

Langileak lan-arloko jurisdikzioan aurkaratu ahal izango ditu paragrafo honetan aipatutako erabakiak, eta bidezkoak edo bidegabeak diren ebatziko du jurisdikzio horrek. Azken kasu horretan, epaiak aginduko du berehala berrabiaraz dadila lan-kontratua, eta enpresaburuari kondena ezarriko dio, kontratua berrabiarazi den egunera arte jaso gabe geratu zaizkien soldatak paga diezazkien langileei, edo, bestela, kontratuak etenda egon diren epean langabezia-prestazioengatik jasotako zenbatekoekiko aldeak paga diezazkien, hargatik eragotzi gabe, betiere, enpresaburuak prestazio horien zenbatekoak pagatu beharra prestaziook kudeatzen dituen erakundeari. Enpresaburuaren erabakiak lege honen 51.1 artikuluan aurreikusitako langile-kopuruari edo gehiagori eragiten dienean, gatazka

kolektiboa eragin ahal izango da, hargatik banakako akzioa baliatzeko aukera galarazi gabe. Gatazka kolektiboa eragiteak gerarazi egingo ditu abiarazitako banakako akzioen izapideak, harik eta ebazten den arte.»

Lau. Aldatu egiten dira 51. artikulua 2. eta 4. paragrafoak. Hona nola geratzen diren idatzita:

«2. Kaleratze kolektiboaren aurretik kontsulta-aldi bat egin beharko da langileen legezko ordezkariekin, gehienez ere hogeita hamar egun naturalekoa; edo hamabostekoa, berrogeita hamar langile baino gutxiago dituzten enpresen kasuan. Kontsulta-aldi horretan, honako hauek aztertu beharko dira, gutxienez: ea badagoen kaleratze kolektiboak saihesteko edo murrizteko aukerarik, eta ba ote den haren ondorioak laguntzako neurri sozialetara joz arintzeko modurik, hala nola beste lanpostu batean kokatzeko neurriak edo enplegarritasuna hobetzeko langileak prestatu edo birziklatzeko ekintzak. Kontsulta hori negoziazio-batzorde bakar batean egingo da, eta, hainbat lantoki izanez gero, prozedurak eragiten dien lantokietan baizik ez da egingo. Negoziatio-batzordeak hamahiru kide izango ditu gehienez, alderdietako bakoitzaren ordezkari gisa.

Kontsulta-prozeduran enpresa-zuzendaritzaren solaskide izatea 41.4 artikuluan aipatzen diren subjektuei dagokie, artikulua horretan bertan ezarritako hurrenkeraren eta baldintzen arabera.

Enpresariak kontsulta-aldiaren hasiera jakinarazi baino lehen eratu beharko da langileen ordezkari-taldea. Horretarako, enpresa-zuzendaritzak fede emateko moduan jakinarazi beharko die bere langileei edo haien ordezkariak kaleratze kolektiboaren prozedura hasteko asmoa. Ordezkari-taldea eratzeko gehieneko epea zazpi egun izango da, jakinarazpen hori egiten denetik hasita, non eta prozedura peko lantokietako batek ez daukan langileen legezko ordezkariak, zeren eta, orduan, epea hamabost egun izango baita.

Ordezkari-taldea eratzeko gehieneko epea igarotakoan, enpresa-batzordeak formaz dagokion eran jakinarazi ahal izango die langileen ordezkariak eta lan-agintaritzari kontsulta-aldiaren hasiera. Ordezkari-taldea eratu ezean, ez da eragozpen izango kontsulta-aldia hasteko eta garatzeko, eta behin kontsulta-aldia hasi eta gero eratzeko bada, horrek, berez, ez dakar kontsulta-aldiaren iraupena luzatzea, inondik ere ez.

Kontsulta-aldiari hasiera emateko jakinarazpena idatziz egin behar du enpresaburuak, eta langileen legezko ordezkariak bidali behar die. Lan-agintaritzari kopia bat helaraziko dio. Idazki horretan, alderdi hauek zehaztuko ditu:

- a) Kaleratze kolektiboa eragin duten arrazoiak, 1. paragrafoan zehaztutakoaren arabera.
- b) Kaleratutako langileen kopurua eta lanbide-sailkapena.
- c) Azkeneko urtean ohikotasunez enplegatutako langileen kopurua eta lanbide-sailkapena.
- d) Kaleratzeak egiteko aurreikusten den epea.
- e) Zer langile kaleratu erabakitzeko irizpideak.
- f) Enpresa-zuzendaritzak kaleratze kolektiboko prozedura hasteko asmoa jakinarazteko langileei edo haien ordezkariak igorritako jakinarazpenaren kopia.
- g) Nortzuk diren negoziatio-batzordeak kide izango dituen langileen ordezkariak, edo, hala balegokio, negoziatio-batzordea legezko epeen barruan eratu ez delako adierazpena.

Langileen legezko ordezkariak eta lan-agintaritzari egin beharreko jakinarazpenarekin batera azalpen-memoria bat igorri beharko da, kaleratze kolektiboa eragin duten kausei buruzkoa eta aurreko paragrafoan adierazitako gainerako alderdiei buruzkoa, bai eta kontabilitate agiriak zein zergei dagozkienak eta txosten teknikoak ere, guztia erregelamenduz ezarritako baldintzen arabera.

Lan-agintaritzak, jakinarazpena jaso ondoren, horren berri emango dio langabezia-prestazioak kudeatzen dituen erakundeari, eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren nahitaezko txostena eskatuko du, aurreko lerroketan adierazitako jakinarazpenaren alderdiei eta kontsulta-aldiari buruz. Txostena aztertzeko, hamabost egun izango dira –epe hori ezin izango da luzatu–, lan-agintaritzari kontsulta-aldia amaitu dela jakinarazten zaionetik, eta prozeduran txertatuko da.

Kontsulta-aldian, fede onez negoziatu behar dute alderdiek, akordio bat lortzeko helburuarekin.

Akordio horrek langileen legezko ordezkarien gehiengoaren adostasuna beharko du, edo, hala balegokio, langileen ordezkari-ta-batzordeko kideen gehiengoarena, eta, betiere, bai kasu batean, bai bestean, prozeduraren peko lantokiko edo lantokietako langileen gehiengoa ordezkatu behar dute.

Enpresaburuak eta langileen legezko ordezkariak edonoiz erabaki ahalko dute kontsulta-aldiaren ordezkariaren esparruan aplikatzekoa den bitartekotza- edo arbitraje-prozedura aplikatzea; kasu horretan, aldi horretarako xedatutako gehienezko epearen barruan gauzatu beharko da bitartekotza edo arbitrajea.

Lan-agintaritzak zaindu egingo du kontsulta-aldia eraginkorra izan dadin, eta, hala balegokio, oharrak eta gomendioak ere egin ahal dizkie alderdiei, baina ezelan ere prozedura gerarazi edo eten gabe. Era berean, eta aurreko paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe, lan-agintaritzak aukeran izango du kontsulta-aldian zehar, alderdiek batera eskatzen badute, komenigarriak diren bitartekaritza-jarduerak gauzatzeko, kaleratze kolektiboak eragindako arazoei konponbideak bilatzearen. Xede berberarekin, laguntza ere eman ahal izango du, aldeetako edozeinek eskatuta edo bere ekimenez.

Kontsulta-aldia amaitutakoan, enpresaburuak emaitzaren berri eman behar dio lan-agintaritzari. Akordioa lortu bada, haren kopia osoa igorriko dio. Osterantzean, kaleratze kolektiboaren azken erabakia eta kaleratze kolektiboaren baldintzak jakinarazi beharko dizkie langileen ordezkariari eta lan-agintaritzari.

Baldin eta, kontsulta-aldian egindako azken bileraz gero hamabost egun igarota, enpresaburuak ez badie langileen ordezkariari eta lan-agintaritzari kaleratze kolektiboari buruzko erabakia jakinarazi, kaleratze kolektiboaren prozedura iraungi egingo da erregelamenduz ezarritako baldintzen arabera.»

«4. Behin akordiora iritsitakoan edo erabakia langileen ordezkariari jakinarazitakoan, enpresaburuak aukeran izango du kaleratzeak banan-banan jakinaraztea langileei, eta legearen 53.1 artikuluan ezarritakoaren arabera egin beharko du hori. Nolanahi ere, gutxienez hogeita hamar egun izan beharko dira igarota kontsulta-aldia hasteko erabakia lan-agintaritzari jakinarazten zaion egunaren eta kaleratzea ondorioak izaten hasiko den egunaren artean.»

Bost. Aldatu egiten da 82. artikuluan 3. paragrafoa. Hona nola geratzen den idatzita:

«3. Lege honetan arautzen diren hitzarmen kolektiboek lege honen beraren aplikazio-eremuan sartzen diren enpresaburu eta langile guztiak behartzen dituzte, hitzarmen kolektiboak indarrean iraungo duen epe guztian zehar.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, kausa ekonomiazko, tekniko, antolakuntzazko edo produktiozkoak direnean tarteko, aukeran izango da hitzarmen kolektiboan ezarritako lan-baldintzak ez aplikatzea enpresan, den hitzarmena sektorekoa edo enpresakoa; horretarako, baina, akordioa beharko da enpresaren eta 87.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera hitzarmen kolektibo negoziatzeko legitimazioa duten langileen ordezkarien artean, eta, erabaki hori hartu aurretik, kontsulta-aldi bat egin beharko da 41.4 artikuluan ezarritako baldintzen arabera. Aplikatuko ez diren lan-baldintzak, dena den, honako gai hauei buruzkoak izan beharko dira:

- a) Lanaldia.
- b) Ordutegia eta laneko denboraren banaketa.
- c) Txandakako lan-araubidea.
- d) Ordainketa-sistema eta soldataren zenbatekoa.
- e) Lan-sistema eta errendimendua.
- f) Eginkizunak, baldin eta lege honen 39. artikuluan ezarritako mugikortasun funtzionalaren mugak gainditzen badituzte.
- g) Gizarte Segurantzaren babes ekintzan borondatez egindako hobekuntzak.

Ekonomiazko kausak tarteko direla joko da, enpresaren emaitzetatik ondorioztatzen denean egoera ekonomikoa txarra dela, hala nola galerak izan dituzte edo aurreikusten direnean, edo enpresaren diru-sarrera arruntak edo salmentak era iraunkorrean gutxitzen direnean. Gutxitzea iraunkorra dela joko da, baldin eta, bi hiru hilabetez jarraian, hiru hilabete bakoitzeko diru-sarrera arruntan edo salmentan maila aurreko urteko hiru hilabete berean erregistratutakoa baino txikiagoa bada.

Kausa teknikoak tartean direla joko da, baldin eta aldaketak gertatzen badira, besteak beste, produzitzeko bitarteko edo tresnen alorrean. Antolakuntzazko kausak gertatu direla, baldin eta aldaketak gertatzen badira, besteak beste, langileen lan-sisteman edo -metodoetan, edo ekoizpena antolatzeko moduan. Eta produkziozko kausak gertatu direla, baldin eta aldaketak gertatzen badira, besteak beste, enpresak merkatuan sartu nahi dituen produktuen edo zerbitzuen eskarian.

Kontsulta-prozeduran enpresa-zuzendaritzaren solaskide izatea 41.4 artikuluan aipatzen diren subjektuei dagokie, artikulua horretan bertan ezarritako hurrenkeraren eta baldintzen arabera.

Kontsulta-aldiaren amaieran akordioa lortu bada, presuntzioa izango da tartean izan direla bigarren paragrafoan aipatzen diren kausa justifikagarriak, eta akordioa lortzerakoan iruzurra, doloa, hertsatzea edo eskubide-abusua izan denean baizik ezingo da haren aurka jo. Akordioak zehatz-mehatz jaso beharko ditu enpresan aplikatuko diren lan-baldintza berriak eta haien iraupena. Akordioaren iraupena ezingo da luzatu enpresari beste hitzarmen bat aplikatzeko zaion unetik aurrera. Ez aplikatzeko akordioa egiten bada ere, bete egin beharko dira generozko diskriminazioak ezabatzei buruz hitzarmenean zehaztutako betebeharrak edo, hala egokituz gero, enpresan aplikagarri den berdintasun-planean aurreikusitakoak. Akordio hori hitzarmen kolektiboaren batzorde parekideari jakinarazi beharko zaio.

Kontsulta-aldian ez bada adostasunik lortzen, aldeetako edozeinek izango du aukeran desadostasuna hitzarmen-batzordearen iritzia pean uztea; hark zazpi egun izango ditu, gehienez, iritzia emateko, desadostasuna aurkeztu zaion unetik beretik. Batzordearen esku-hartzea eskatu ez bada edo batzordean ez bada adostasunik lortu, estatuaren edo autonomia-erkidegoaren esparruko lanbide arteko akordioetan ezarritako prozedurara jo beharko dute alderdiek –lege honen 83. artikuluan ezarritakoetara, hain zuzen–, paragrafo honetan aipatzen den akordioei buruzko negoziazioetan sortutako desadostasunak ebazte aldera, are bat ez etortzeak arbitraje lotesle baten pean ezartzeko alde aurreko konpromisoa bera ere barne, eta arbitrajera joz gero, kontsulta-aldietako akordioen beren eraginkortasuna izango dute arbitrajeko laudoek, eta 91. artikuluan ezarritako prozedura eta kausen arabera baizik ezingo da errekurtsioa jarri haien aurka.

Kontsulta-aldia akordiorik iritsi gabe amaitzen bada eta aurreko paragrafoan aipatzen diren prozedurak ezin aplikatu badira, edo prozedura horien bidez ezin izan denean desadostasuna konpondu, alderdietako edozeinek izango du aukeran konponbideari buruzko iritzia eskatzeko; Hitzarmen Kolektiboaren Kontsulta Batzorde Nazionalari, lan-baldintzak aplikatu gabe uzteak autonomia-erkidego bat baino gehiagoren lurraldean kokatuta dauden lantokiei eragiten badie, eta autonomia-erkidegoan dagokion organoari, gainerako kasuetan. Organo horiek organokideen artean har dezakete erabakia, edota organokideek xede horretarako izendatutako arbitro baten bidez, inpartzialtasuna bermatzeko beharrezkoak diren bermeekin,

eta, betiere, gatazka organo horien esku jarri denetik gehienez hogeita bost eguneko epean. Erabaki horrek, hala, kontsulta-aldian iritsitako akordioen eraginkortasun berbera izango du, eta 91. artikuluan ezarritako prozeduraren eta kausen arabera baizik ezingo da errekurtsioa jarri haren aurka.

Aurreko lerroketan adierazitako prozeduren ondorioz lan baldintzak ez aplikatzea xedatu bada, erabaki hori lan agintaritzari jakinarazi beharko zaio, gordailuan sartzeko.»

10. artikulua. *Konkurtsori buruzko Legea aldatzea (22/2003 Legea, uztailaren 9koa).*

Aldatu egiten dira Konkurtsori buruzko Legearen 64. artikulua 2. eta 6. paragrafoak (22/2003 Legea, uztailaren 9koa). Hona nola geratzen den idatzita:

«2. Administrazio konkurtsalak, zordunak edo konkurtsoko peko enpresako langileek, beren legezko ordezkarien bitartez, aukeran izango dute lan-baldintzen funtsezko aldaketa eta kontratuen azkentze edo etete kolektiboak eskatzea konkurtsoko epaileari, konkurtsoko pekoa denean enplegatzailea.

Prozedura honen tramitazioan, langileen ordezkariak Langileen Estatutuaren 41.4 artikuluan aipatutako subjektuei dagokie, hantxe ezarritako hurrenkera eta baldintzen arabera. Artikulu horretan aipatutako epeak igaro eta langileek ordezkariak izendatu ez dutenean, epaileak erabaki dezake batzorde batek esku har dezala; hiru kide izango ditu gehienez, eta ordezkagarritasun nagusiko sindikatuak eta enpresaren sektoreko ordezkagarritasuna dutenek osatuko dute.»

«6. Kontsulta-aldian zehar, langileen ordezkariak eta administrazio konkurtsalek fede onez negoziatu beharko dute akordio bat iriste aldera.

Akordioa lortzeko, langileen legezko ordezkarien gehiengoaren adostasuna beharko da, edo, hala balegokio, langileen ordezkariak-batzordeko kideen gehiengoarena, baldin eta, bai kasu batean, bai bestean, prozeduraren peko lantokiko edo lantokietako langileen gehiengoak ordezkatzeko badute.

Administrazio konkurtsalak eta langileen ordezkariak sinatutako hitzarmenarekin batera eskabidea aurkeztu ahalko da; hala eginez gero, ez da abiarazi beharko kontsulta-aldirik.

Akordioan, prozeduraren peko langileak nortzuk diren zehaztuko da, eta haien kalte-ordainak ezarriko, lan-arloko legedian ezarritakoaren arabera; non eta ez diren, konkurtsoren eragina jasaten duten interesak haztatuz, beste kalte-ordain handiago batzuk hitzartzen.

Ezarritako epea amaitzean edo akordio bat lortzen den unean, administrazio konkurtsalak eta langileen ordezkariak kontsulta-aldiaren emaitza jakinaraziko diote konkurtsoko epaileari.

Behin jakinarazpen hori jasotakoan, idazkari judizialak txostena eskatuko dio lan-agintaritzari, proposatutako neurriari buruz edo lortutako akordioari buruz; hamabost eguneko epean eman beharko du hark txostena, eta lan-agintaritzak aukeran izango du txosten hori eman baino lehen administrazio konkurtsalari eta langileen ordezkariari entzutea.

Konkurtsoko epaileak txostena jasotakoan edo txostena emateko epea igarotakoan, aurrera egingo du prozedurak. Txostena epez kanpo ematen bada, konkurtsoko epaileak aukeran izango du kontuan hartu edo ez, dagokion ebazpena emateko.»

11. artikulua. *Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legea aldatzea (36/2011 Legea, urriaren 10koa)*

Aldatu egiten da Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legea (36/2011 Legea, urriaren 10koa). Hona nola:

Bat. Aldatu egiten dira 124. artikulua 3., 6., 11. eta 13. paragrafoak. Hona nola geratzen diren idatzita:

«3. Baldin, langileen ordezkariak akzioa baliatzeko duten hogei eguneko iraungipen-epea igarotakoan, 1. paragrafoak aipatzen dituen subjektuek edo lan-agintaritzak ez badute artean kontratuak azkenarazteko erabakiaren kontra jo lege honen 148.b) artikulua araberera, enpresaburuak, aurreko epe hori amaitu eta hogei eguneko epea igarotakoan, demanda aurkeztu ahal izango du, kontratua azkenarazteko erabakia zuzenbidearen arabera dela adieraz dadin. Langileen legezko ordezkariak pasiboki legitimatuta egongo dira. Epaia adierazpenezkoa izango da, eta gauza epaituaren ondorioak izango ditu banakako prozesuetan, lege honen 160. artikulua 5. paragrafoan zehaztutako moduan.

Enpresariak demanda aurkeztuta, eten egingo da kaleratzeko banakako akzioaren iraungipen-epea.»

«6. Demanda hori aurkezteko, hogei eguneko iraungipen-epea izango da, kontsulta-aldian akordioa iristen den egunetik kontatzen hasita edo langileen ordezkariari enpresariaren kaleratze kolektiboko erabakia jakinarazten zaienetik hasita.»

«11. Epaiketa egin eta hurrengo bost egunen barruan emango da epaia, eta kasazio-errekurtso arrunta aurkeztu ahal izango da haren aurka.

Kontratuak azkentzeko erabakia zuzenbidearen arabera dela adieraziko du epaiak, baldin eta, enpresaburuak, Langileen Estatutuaren 51.2 edo 51.7 artikuluetan xedatutakoa betez, egiaztatzen badu ezen tartean izan dela argudiatutako legezko kausa.

Epaiak adieraziko du kontratuak azkentzeko enpresaburuaren erabakia ez dela zuzenbidearen arabera, baldin eta enpresaburuak ez badu egiaztatzen ezen azkentzeko jakinarazpenean aipatutako legezko kausa ez dela tartean izan.

Epaiak ezdeus joko du kontratuak azkentzeko erabakia, baina kasu hauetan bakarrik: enpresaburuak kontsulta-aldirik egin ez duenean; edo Langileen Estatutuaren 51.2 artikuluan xedatutako dokumentazioa entregatu ez duenean edo Langileen Estatutuaren 51.7 artikuluan ezarritako prozedura errespetatu ez duenean; edo konkurtsoko epaiak baimenik eman ez dionean legez hala ezarrita egonik; edo, orobat, enpresaburuaren erabakiak funtsezko eskubideak eta askatasun publikoak urratzen dituenean. Kasu horretan, epaiak adierazi beharko du erasandako langileek eskubidea dutela beren lanpostuetara itzultzeko, lege honetako 123. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan xedatutako araberera.»

«13. Kaleratzeak langile bakar bati eragiten dionean, hark erabakiaren aurka jo dezake lege honetako 120. artikulutik 123. artikulura arte xedatutako prozeduraren bidez, betiere ondoren aipatzen diren berezitasunak kontuan hartuz.

a) Aurreko paragrafoetan araututako prozeduraren bitartez kaleratze kolektiboaren kontra jo denean, honako arau espezifiko hauek aplikatuko zaizkio banakako kaleratze-prozesuari:

1.a Banakako inpuñaziorako epea hasiko da langileen ordezkariak akzioa baliatzeko 20 eguneko iraungipen-epea igarotakoan.

2.a Auzigaia zenbait langileri emandako lehentasunei buruzkoa baldin bada, langile horiek ere demandatu egin beharko dira.

3.a Kaleratzea, lege honetako 122.2 artikuluan jasotzen diren zioez beste, honako zio hauengatik baizik ez da izango deuseza: enpresaburuak kontsulta-aldirik egin ez duenean, edo Langileen Estatutuaren 51.2 artikuluan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu ez duenean, edo estatutu horretako 51.7 artikuluan ezarritako prozedura errespetatu ez duenean, edo konkurtsoko epailearen baimenik lortu ez duenean, legez hala ezarrita dagoen kasuetan.

4.a Deuseza izango da, orobat, kontratuaren azkentzea, baldin eta enpresaburuak, erabaki hori hartzean, ez baditu errespetatu legeetan, hitzarmen kolektiboetan edo kontsulta-aldian iritsitako akordioetan ezarritako iraupen-lehentasunak. Deuseztasunak ez die eragingo kaleratze kolektiboko erabaki horretan bertan iraupen-lehentasunak errespetatu dituzten kontratu-azkentzei.

b) Kaleratze kolektiboaren kontra aurreko artikuluetako paragrafoetan araututako prozeduren bitartez jo denean, honako arau hauek aplikatuko dira:

1.a Banakako inpugnaziorako iraungipen-epea, beraz, prozesu kolektiboan emandako lehenbiziko epaia irmoa denetik hasiko da kontatzen, edo, hala balegokio, adiskidetze judizialek.

2.a Epai irmoak edo adiskidetze judizialaren erabakiak gauza epaituaren eraginkortasuna izango dute banakako prozesuen gainean, eta, beraz, aurreko paragrafoetan araututako prozesuaren bitartez aurkeztutako demandaren helburu izan diren banakako kontuak izango dira prozesu horien xedea, ez besterik.

3.a Kontratuaren azkentzea deuseza izango da, baldin enpresaburuak ez baditu errespetatu legetan, hitzarmen kolektiboetan edo akordioan ezarritako iraupen-lehentasunak, kontratua azkentzeko erabakia hartu duenean. Nolanahi ere, kaleratze kolektiboaren barruan, lantokian gelditzeko lehentasunak errespetatu dituzten kontratuiraugipenak ez dira deusezak izango.»

Bi. Aldatu egiten da 247. artikulua 2. paragrafoa. Hona nola gelditzen den idatzita:

«2. Epaiak betearazteko artikulua honetan arautzen den modalitatea lan-arloko gainerako betearazpen-tituluei ere aplikatuko zaie, diren judiziozkoak edo judizioz kanpokoak, baldin eta kondena-uzia baiesten badute eta 160. artikulua 3. paragrafoan ezarritako baldintzen arabera banaka betearaz badaitezke; orobat mugikortasun geografikoari buruz, lan-baldintzen funtsezko aldaketari buruz, kontratuaren eteteari buruz edo kausa ekonomiko, tekniko, antolakuntzazko edo produkziozkoengatik lanaldia murrizteari buruz emandako epai irmo edo betearazpen-tituluei ere, baldin eta kolektiboak badira, bai eta enpresaburuaren erabakia deusez jo izan den kaleratze kolektiboko kasuetan ere.»

Lehenengo xedapen gehigarria. *Banku Berregituratzearen ondoriozko Aktiboak Kudeatzeko Sozietatea estatuaren etxebizitza-planetako erakunde laguntzailatzat onartzea.*

1. Banku Berregituratzearen ondoriozko Aktiboak Kudeatzeko Sozietatea, Estatuaren Etxebizitza Planekin lotutako maileguren titular den aldetik, etxebizitza-planaren barruan jarduera babestuak finantzatzeko Sustapen Ministerioaren erakunde laguntzailatzat jotzen da, eratuz geroztik. Banku Berregituratzearen ondoriozko Aktiboak Kudeatzeko Sozietatearen aktiboak bereizi eta eskualdatu eta gero ere mailegu horiek hitzartuak izango dira, eta aurrerantzean ere bai, nahiz eta sozietate horrek beste edozein finantza-erakunde laguntzailerik laga edo eskualdatu maileguok, edozein dela ere aplikatzekoa zaien Estatuaren Etxebizitza Plana.

2. Mailegu horiek eman dituzten finantza-erakunde laguntzaileek Estatuaren Etxebizitza Planen finantza-laguntzak kudeatuko dituzte aurrerantzean ere, mailegua beste finantza-erakunde bati lagatzen edo eskualdatzen ez zaion bitartean, sinatuta dituzten lankidetzaren hitzarmenetan hitzartutakoaren arabera; mailegua beste erakunde laguntzaile bati lagatzen edo eskualdatzen bazaio, erakunde laguntzaile horrek hartuko du bere gain maileguaren kudeaketa.

3. Ekainaren 4ko etxebizitzak alokatzeko merkatua malgutzeko eta sustatzeko neurriak buruzko 4/2013 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren a) letraren bigarren paragrafoan eta b) letran araututako kasuak Banku Berregituratzearen ondoriozko Aktiboak Kudeatzeko Sozietateari eskualdatutako mailegu hitzartuei aplikatzerakoan, honako baldintza eta epe hauek bete behar dira, salbuespenez:

a) Finantza-erakunde laguntzaileak Sustapen Ministerioari igorri behar dira, lege hau indarrean sartzen denetik 30 egun balioduneko epe luzaezinean, sustatzailearen maileguarekiko subrogazioari onarpena emateko eskabidea, eta, harekin batera, horretarako eskatu zaion dokumentazioa; eta halaxe jasoko da ministerio horren sarrera-erregistroan.

b) Onuradunak bi hilabete izango ditu, onarpen horrez gero, mailegua formalizatzeko.

4. Ezingo da lortu subsidio-laguntzarik ez eta Estatuaren Sartzeko Laguntza Zuzenkorik, 4/2013 Legean xedatutako kasuetan eta lege honetan xedatutako kasuetan izan ezik.

5. Xedapen honek atzerako eragina izango du, eta Banku Berregituratzearen ondoriozko Aktiboak Kudeatzeko Sozietateari eskualdatutako eta Estatuaren Etxebizitza Planekin lotutako mailegu guztiei, aplikatuko zaie, eskualdatzen direnetik hasita.

Bigarren xedapen gehigarria. *Ondare-prestazio publikoen tarifei gehikuntzak aplikatzea.*

Aire Segurtasunari buruzko Legearen 92.2. artikuluan c) paragrafoan xedatutako unitate-tarifen gehikuntzak (21/2003 Legea, uztailaren 7koa), lege honen 1. artikuluan aipatzen direnak, AENA Aeropuertos, S.A. sozietateak jasotzen dituen ondare-prestazio bakoitzagatik 2013an eskatzekoak diren zenbatekoei aplikatuko zaizkie (Lege honen I. eranskinean daude jasota).

Hirugarren xedapen gehigarria. *Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 74. eta 75. artikuluetan ezarritako trenbide-kanonen zenbatekoak ezartzen dituen apirilaren 8ko FOM/898/2005 Aginduaren indarraldia.*

1. FOM/898/2005 Agindua aplikatzekoa izango da harik eta, Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 77. artikuluko berria ezarritako prozeduraren bitartez, trenbide-kanonen zenbatekoen lehenbiziko eguneratzea egiten den arte.

2. Lehenbiziko eguneratze hori Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 77. artikuluko berria ezarritako prozeduraren bitartez gauzatzeko, trenbide-azpiegituren administratzaileak kontuan hartuko ditu FOM/898/2005 Aginduan ezarritako parametro eta irizpideak, honako aldakuntza hauekin, betiere:

Bat. 1. artikuluko 1. zenbakiko a) letra «Sarbide-kanona (A modalitatea)» honela geratzen da idatzita:

«a) Sarbide-kanona (A modalitatea). Interes Orokorreko Trenbide Sarera sartzeko zenbatekoa zehazteko, zerbitzuak eman nahi diren sare-tarteak zer motakoak diren hartzen da kontuan, bai eta subjektu pasiboak tarte horietako bakoitzerako aurreikusitako trafiko-mailaren arabera egindako jarduera-aitorpena ere.

I. eranskineko trafiko-maila bakoitzerako, bi zenbateko ezarriko dira: bat A kategoriako lineetan gauzatzen diren zerbitzuetarako (II. eranskinaren arabera), eta, bestea, gainerako lineetan gauzatzen direnetarako.»

Bi. 1. artikuluko 1. zenbakiko d) letra «Trafiko-kanona (D modalitatea)» honela geratzen da idatzita:

«d) Trafiko-kanona (D modalitatea): Modalitate hau III. eranskinean definitzen diren bidaiari-zerbitzuei baizik ez zaie aplikatuko, betiere, ematen den bidaiarien trenbide-garraioko zerbitzuaren balio ekonomikoaren arabera, eskainitako ahalmenaren arabera neurturik (plaza/km, linearen eta eguneko orduaren arabera bereizirik).

Unitate-zenbateko bat ezarriko da linea-mota konbinazio bakoitzerako (II. eranskinaren arabera), zerbitzu-mota bakoitzerako (III. eranskinaren arabera) eta ordutegi-tarte bakoitzerako (IV. eranskinaren arabera).

Trafiko-kanonaren zenbatekoa honako hau izango da: lehen aipatutako unitate-zenbatekoak eta eskainitako 100 plaza/km bakoitza (edo zatikia) biderkatuta ateratzen den emaitza.

Arau honen ondorioetarako, plaza/km-tan eskainitako ahalmena honako hau izango da: tren baten osaerak dituen plaza guztien kopurua eta ibilitako kilometro guztien kopurua biderkatuta ateratzen den emaitza.»

Hiru. Hona nola geratzen den idatzita FOM/898/2005 Aginduaren I. eranskina:

«I. ERANSKINA

Trafikoaren maila

Maila	Urteko milioi km/tren
N1.A	≤ 0,2
N1.B	>0,2 eta ≤ 0,5
N1.C	>0,5 eta ≤ 1,0
N2.A	>1,0 eta ≤ 2,5
N2.B	>2,5 eta ≤ 5,0
N2.C	>5,0 eta ≤ 10,0
N3.A	>10,0 eta ≤ 15,0
N3.B	>15,0 eta ≤ 20,0
N3.C	>20,0 eta ≤ 30,0
N3.D	>30,0 eta ≤ 40,0
N3.E	>40,0 eta ≤ 50,0
N3.F	>50»

Lau. Hona nola geratzen den idatzita FOM/898/2005 Aginduaren II. eranskina:

«II. ERANSKINA

Trenbide-lineen sailkapena

Linea mota	Linearen gehienezko abiadura
A	A.1 Madril – Bartzelona – Frantziako muga izenekoa (Figueras-Perpignan nazioarteko sekzioarekiko muga, TP Ferrok administratua)
	A.2 Gainerako lineak, gehienezko abiadura >250 Km/h dutenak ibilbidearen 2/3ean, gutxienez.
B	B.1 250 Km/h ≥ linearen gehienezko abiadura > 200 Km/h, ibilbidearen 2/3an, gutxienez.
C	C.1 Aldiri-korapiloak
	C.2 Gainerako lineak.

Lineen sailkapenaren gaineko urtez urteko informazioa trenbide-azpiegituren administratzaileak aldiro-aldiro sareari buruz egiten duen adierazpenean sartuko da.»

a) Hona nola geratzen den idatzita FOM/898/2005 Aginduaren III. eranskina:

«III. ERANSKINA

Tren-zerbitzuen eta moten ezaugarriak

Klasea	Mota	Ezaugarriak
Bidaiariak	VL1	Distantzia luzeko zerbitzuak, VL2, VL3 eta VOT izenekoak izan ezik.
	VL2	Distantzia luzeko zerbitzuak zabalera aldakorreko erlazioetan, betiere ibilbide osoaren % 10 iberiar zabalera lineetatik badoa.
	VL3	Ibilbide luzeko zerbitzuak, zeharkako erlazio luzeetan: ibilbidea 700 km baino handiagoa denean, betiere jatorria, helmuga edo tarteko geltokia Madrilen eta haren adarretan ez badago.
	VCM	– Hiri-zerbitzuak edo hiri-inguruak: ibilbide osoa aldirietako nukleo batean dutenak. – Hiri arteko zerbitzuak: ez hiriko ez hiri inguruak, baina ibilbidea 300 km baino laburragoa dutenak. Kanpoan geratzen dira nazioarteko trenak eta distantzia luzeko trenen adarrak. – Zerbitzu publikoko betebehartzat izendatutako zerbitzuak.
	VOT	Bidaiari gabeko bidaiari-tren eta -materiala, honako hauek barne: makinak bakarka, hutsik doazen trenen mugimenduak, prestakuntza eta probak.
Salgaiak	M	Salgai-zerbitzu guztiak, honako hauek barne: kargadunak, hutsik doazenak, makinak bakarka eta probak

Probako zerbitzutzat joko da fabrikazio berriko trenbide-ibilgailuak edo ibilgailu berriak edo lehendik direnak egokitzeko eta haien kalibratio teknikoak egiteko gauzatzen den tren-zirkulazioa, baldin eta zerbitzuan hasteko edo zirkulatzeko baimena behar badute, edota haien osagaietako bat kalibratzeko gauzatzen dena.»

3. Trenbide Sektoreari buruzko Legearen 77. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez zenbatekoak lehen aldiz eguneratu zirenez geroztik (39/2003 Legea, azaroaren 17koa), eta lege horren 73.6 artikulua berriaz aipatzen diren ministro-aginduak onartzen ez diren artean, aplikatzekoa izango da FOM/898/2005 Agindua, hark ezarritako zenbatekoak izan ezik, baina aurreko paragrafoan jasotzen diren aldaketekin.

Laugarren xedapen gehigarria. *Lanaldi partzialeko langileei buruzko neurrien gaineko txostena*

Gobernuak, lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean, txosten bat egingo du lege horren bidez sartutako neurriek lanaldi partzialeko langile guztiei ekarritako ondorioei buruz; bertan, egokitze-proposamenak ere egin ahal izango ditu kolektibo horri dagokion kotizazioa eta babes-ekintza hobetzeko, hobetu ahal badira.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Gazte Bermea ezartzea*

Gazte Bermea ezartzeari buruzko Europar Batasuneko Kontseiluak egindako gomendio-proposamenarekin bat etorritik, Gobernuak, 2013 amaitu aurretik, europar erakundearen aurrean aurkeztuko du hura ezartzeko landutako plana; epe berean, Gazteen enpleguari buruzko ekimenean, hain zuzen, Espainiarako aurreikusitako funtsen banaketa egingo du, lurraldeen arabera, eta autonomia-erkidegoetako bakoitzean gazteen langabeziarekin zerikusia duten datuekin bat.

Horretarako, Gazteen Enplegurako Ekintza Programa abiaraziko du autonomia-erkidegoetako koordinazioan, hurrengo programazio-aldiko (2014-2020) Europako Gizarte Funtsaren kudeaketa esparruaren baitan. Europar Batasunetik datozen baliabideak bideratzeko balio izango du programak, hain zuzen, 25 urtera bitarteko gazte guztiek, haien profilerako egokia den eta Kontseiluaren gomendioan jasotako epearen barruan, enplegu eskaintza, hezkuntza jarraitua, prestakuntza edo praktika-aldia izan dezaten

langabezian geratu edo hezkuntza formala amaitu eta gero. Gizartean, lurraldeen arabera dauden errealitate desberdinei emango die erantzuna programa horrek.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Lanaldi partzialeko langileen Gizarte Segurantzako prestazio ukatuak eta izapidetzen ari direnak.*

1. Lege honen 5. artikulua lehenengo paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da ere 2013ko abuztuaren 4a baino lehen gutxieneko kotizazio-aldia ez egiaztatzeagatik ukatuak izan ziren prestazioen kasuan, eskubidea sorrarazteko. Araudi berriaren arabera eskatzen den gutxieneko epea betez gero, eskubidea sorrarazten duen egitatea jatorrizko datan gertatu dela joko da, hargatik eragotzi gabe eskubidea aitortzearen ondorio ekonomikoek gehienez ere hiru hilabeteko atzerako eragina izatea, eskabide berria egiten denetik hasita, betiere 2013ko abuztuaren 4a dela muga.

2. Salbuespen gisa, 2013ko abuztuaren 4an eskabidea izapidetzen ari zitzaien prestazioak lege honen pean izango dira, eta, aitortuz gero, dena delako prestazioa sorrarazten duen egitateaz geroztik hasiko dira eragina izaten.

Bigarren xedapen iragankorra. *Izapidetzen ari diren prozedurei eta espedientei aplikatzekoa den araubidea.*

1. Mugikortasun geografikoari buruzko prozedurak, lan-baldintzen funtsezko aldaketari buruzkoak, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan aurreikusitako lan-baldintzak ez aplikatzeari buruzkoak eta kaleratze kolektibo eta kontratuen eteteari eta lanaldia murrizteari buruzko prozedurak, guztiak ere 2013ko abuztuaren 4an izapidetzen ari zirenak, hasitakoan indarrean zegoen araudiaren pean egongo dira.

Konkurtsori buruzko Legearen 64.2 eta 64.6 artikuluetan xedatutakoa (22/2003 Legea, uztailaren 9koa), lege honek emandako idazkera berriaren arabera, 2013ko abuztuaren 4an abian diren konkurtsu-prozedurei aplikatuko zaie, espedientea izapidetzeko eta harez geroztik eskatzen diren neurriak onartzeko, baldin eta neurriok lan-baldintzen azkentze, etete edo aldatze kolektiboa badakarte.

2. Lan kontratuak amaitzeko edo eteteko, edota lanaldia murrizteko enplegu erregulazioko espedienteak, lan-agintaritzak ebatzitakoak eta 2013ko abuztuaren 4an indarrean zirenak, espedientea ebatzi zenean indarrean zen araudiak arautuko ditu.

Hirugarren xedapen iragankorra. *Kausa ekonomiko, antolakuntzazko, tekniko edo produkziozkoengatik edo ezinbesteagatik erabakitzen diren kaleratze kolektiboetarako aplikatzekoa den prozesu-araubidea*

Lege honen 11. artikuluan xedatutakoa 2013ko abuztuaren 4tik aurrera hasitako kaleratze kolektiboaren prozesuei aplikatuko zaie.

Xedapen indargabetzailea. *Arauk indargabetzea.*

Indarrrik gabe geratzen da lege honetan ezarritakoaren aurka doan maila bereko edo beheragoko xedapen oro.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Eskumen-titulua.*

Lege honen I. kapituluak Espainiako Konstituzioaren 149.1.13., 20., 21. eta 24. xedapenen ondotik ematen da, Estatuari esleitzen baitiote eskumena arlo hauetan: ekonomia-jarduera oro har planifikatzeko oinarriak eta koordinazioa; aire-eremuaren kontrola; aireko iragaitea eta garraioa; autonomia-erkidego bat baino gehiagoren lurraldetik igarotzen den trenbide eta lurreko garraioa, eta interes orokorreko herri-lanak.

II., III. eta IV. kapituluak Espainiako Konstituzioaren 149.1.6., 7. eta 17. xedapenen ondotik ematen dira, Estatuari esleitzen baitio honako arlo hauen gaineko eskumen eskusiboa: legeria prozesala; lan-arloko legegintza, albo batera utzi gabe autonomia-erkidegoko organoek gauzatzea hura; Gizarte Segurantzaren oinarritzko legeria eta

araubide ekonomikoa, alde batera utzi gabe haren zerbitzuak autonomia-erkidegoek ematea.

Azken xedapenetako bigarrena. *1796/2010 Errege Dekretua aldatzea (1796/2010 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, enplegu-agentziak arautzen dituen).*

Aldatu egiten da 1796/2010 Errege Dekretuaren 5. artikulua f) letra (1796/2010 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa). Hona nola geratzen den idatzita:

«f) Ez azpikontratatzea hirugarren batzuei baimenaren xede den jarduera, non eta ez diren beste enplegu-agentzia baimendu batzuk.»

Azken xedapenetako hirugarrena. *625/1985 Errege Dekretua aldatzea (625/1985 Errege Dekretua, apirilaren 2koa, langabeziatik babesteari buruzko abuztuaren 2ko 31/1984 Legea garatzekoa)*

Aldatu egiten da 625/1985 Errege Dekretuaren 28. artikulua 2. paragrafoa (625/1985 Errege Dekretua, apirilaren 2koa, langabeziatik babesteari buruzko abuztuaren 2ko 31/1984 Legea aldatzekoa). Hona nola:

«2. Langabezia-prestazioa edo -subsidioa jasotzeko eskubidea etetea edo azkentzea eragiten duen kausa bat sortzen denean, langileak dagokion enplegu-bulegoan aurkeztu beharko du kausa hori egiaztatzeko agiria. Eteteko kausa eskubide horrekin bateraezinak diren lanak egitea bada, jakinarazi egin beharko da zerbitzuak ematen hasi aurretik.»

Azken xedapenetako laugarrena. *1483/2012 Errege Dekretua aldatzea (1483/2012 Errege Dekretua, urriaren 29koa, kaleratze kolektiboaren eta kontratu-eteteen eta lanaldi-murrizteen prozeduren erregelamendua onartzen duena).*

Aldatu egiten da 1483/2012 Errege Dekretua (1483/2012 Errege Dekretua, urriaren 29koa, kaleratze kolektiboaren eta kontratu-eteteen eta lanaldi-murrizteen prozeduren erregelamendua onartzen duena). Hona nola:

Bat. Hona nola geratzen den idatzita 3. artikuluko 1. paragrafoa:

«1. Edozein dela ere kaleratze kolektiborako kausatzat aipatzen dena, kontsulta-aldia hasteari buruzko jakinarazpenak honako alderdi hauek eduki beharko ditu:

a) Kaleratze kolektiboaren kausak zehaztea, 1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Kaleratutako langileen kopurua eta lanbide-sailkapena. Kaleratze kolektiboaren prozedurak lantegi bati baino gehiagori eragiten dionean, jakinarazpen hori xehekatu egin beharko da lantegika, eta, hala balegokio, probintziak eta autonomia-erkidegokia.

c) Azkeneko urtean ohikotasunez enplegatutako langileen kopurua eta lanbide-sailkapena. Kaleratze kolektiboaren prozedurak lantegi bati baino gehiagori eragiten dionean, jakinarazpen hori xehekatu egin beharko da lantegika, eta, hala balegokio, probintziak eta autonomia-erkidegokia.

d) Kaleratzeak egiteko aurreikusten den epea.

e) Zer langile kaleratu erabakitzeko irizpideak.

f) Enpresa-zuzendaritzak kaleratze kolektiboko prozedura hasteko asmoa jakinarazteko langileei edo haien ordezkariari igorritako jakinarazpenaren kopia.

g) Nortzuk diren negoziazio-batzordeak kide izango dituen langileen ordezkariak, edo, hala balegokio, negoziazio-batzordea legezko epeen barruan eratu ez delako adierazpena.»

Bi. Hona nola geratzen den idatzita 4. artikulua 5. paragrafoa:

«5. Prozedura hasten duen enpresa kontu bateratuak aurkezteko obligazioa duen enpresa-talde handi bateko kide denean eta talde horretako sozietate nagusiak egoitza Espainian duenean, taldeko sozietate nagusiaren urteko kontuak eta kudeaketa-txosten bateratua igorri beharko dira ikuskaturik, baldin eta kontuak ikuska dakizkien obligazioa duten enpresak badira; 2. paragrafoan aipatutako epean bete beharko dute betebeharrak, betiere prozedura hasten duen enpresarekin zorrak edo hartzekoak badituzte saldoan. Kontu bateratuak aurkezteko obligaziorik ezean, prozedura hasten duen enpresaren dokumentazio ekonomiko horrez gain, taldeko gainerako enpresena ere igorri beharko da, behar bezala ikuskaturik, baldin eta kontuak ikuska dakizkien obligazioa duten enpresak badira, betiere enpresa horiek sozietate-egoitza Espainian badute, jarduera bera baldin badute edo jarduera-sektore berekoak badira eta zorrak edo hartzekoak badituzte saldoan prozedura hasten duen enpresarekin.»

Hiru. Hona nola geratzen diren idatzita 6. artikuluko 1. eta 2. paragrafoak:

«1. Enpresaburuak, ahal dela euskarri informatikoan, langileen legezko ordezkariari igorritako jakinarazpenarekin batera, 2. artikuluan aipatzen den idazkiaren kopia igorriko dio lan-agintaritzari, bai eta 3. artikuluan eta 4. eta 5. artikuluetan aipatzen den dokumentazioa ere, kaleratzeko kausak zeintzuk diren. Horrez gain, langileen legezko ordezkariari txostena eskatzeko igorritako idazkiaren kopia ere aurkeztu beharko du, 3.3 artikuluan aipatzen dena.

2. Era berean, langileen ordezkarietza batzuk eta besteak nola osatu diren adierazteko informazioa ere igorri beharko du, bai eta ordezkarietza unitarioak gabeko lantegien gainekoa ere, eta, orobat, hala balegokio, 27. artikuluan aipatzen den batzordeari ordezkarietza esleitzeari buruzko aktak.»

Lau. Hona nola geratzen den idatzita 17. artikuluko 2. paragrafoa:

«2. Kontsulta-aldia hasi izana jakinarazteko mezuak honako hauek zehaztu beharko ditu:

a) Kontratuak etetea edo lanaldia murriztea eragiten duten kausak zehaztu behar ditu.

b) Kontratuak eteteko edo lanaldia murrizteko neurriak eragiten dien langileak zenbat diren eta zer lanbide-sailkapen zegoen. Prozedurak lantegi bati baino gehiagori eragiten dionean, informazio hori xehekatu egin beharko da lantegika eta, hala balegokio, probintziak eta autonomia-erkidegokia.

c) Azkeneko urtean ohikotasunez enplegatutako langileen kopurua eta lanbide-sailkapena. Kontratuak eteteko edo lanaldia murrizteko prozedurak lantegi bati baino gehiagori eragiten dionean, informazio hori xehekatu egin beharko da lantegika eta, hala balegokio, probintziak eta autonomia-erkidegokia.

d) Kontratuak eteteko edo lanaldia murrizteko neurriak zeintzuk diren zehaztea eta neurri gainerako xehetasunak.

e) Zer irizpide hartu diren kontuan kontratuak eteteko edo lanaldia murrizteko neurriak eragiten dieten langileak hautatzeko.

f) Enpresako zuzendaritzak kontratuak eteteko edo lanaldia murrizteko prozedura hasteko asmoa jakinarazteko langileei edo haien legezko ordezkariari igorri dien mezuaren kopia.

g) Nortzuk diren negoziazio-batzordeak kide izango dituen langileen ordezkariak, edo, hala balegokio, negoziazio-batzordea legezko epeen barruan eratu ez delako adierazpena.

Mezu horrekin batera azalpen-memoria bat aurkeztu beharko da, kontratuak eteteko edo lanaldia murrizteko kausak eta paragrafo honetan aipatu diren gainerako alderdiak azaltzeko.»

Bost. Hona nola geratzen diren idatzita 19. artikuluko 1. eta 2. paragrafoak:

«1. Enpresaburuak, 17. artikuluan aipatzen den jakinarazpena langileen legezko ordezkariari entregatzearekin batera, haren kopia igorri beharko dio lan-agintaritzari, bai eta 18. artikuluan aipatzen den dokumentazioa ere.

2. Era berean, langileen ordezkari batzuk eta besteak nola osatu diren adierazteko informazioa ere igorri beharko du, bai eta ordezkari unitario gabe lantegien gainekoa ere, eta, orobat, hala balegokio, 27. artikuluan aipatzen den batzordeari ordezkari esleitzeari buruzko aktak.»

Sei. Hona nola geratzen den idatzita 26. artikulua:

«Kontsulta-prozeduran enpresa-zuzendaritzaren solaskide izatea Langileen Estatutuaren 41.4 artikuluan aipatzen diren subjektuei dagokie, artikulua horretan bertan ezarritako hurrenkeraren eta baldintzen arabera.»

Zazpi. Hona nola geratzen den idatzita 27. artikulua:

«1. Kontsulta hori negoziatio-batzorde bakar batean egingo da, eta, hainbat lantoki izanez gero, prozedurak eragiten dien lantokietan baizik ez da egingo. Negoziatio-batzordeak hamahiru kide izango ditu gehienez, alderdietako bakoitzaren ordezkari gisa arituko baitira.

2. Prozeduretan langileen ordezkari gisa jardungo den negoziatio-batzordeak, eratze-aktan, adierazi beharko du kide anitzeko organo gisa eratzten dela borondatea eratzeari dagokionez eta bere erabakien indar lotesleari dagokionez.»

Zortzi. Hona nola geratzen den idatzita 28. artikulua:

«1. Kontsulta-aldian akordioak lortzeko, negoziatio-batzordeko kiderik gehien adostasuna beharko da, betiere prozeduraren peko lantokiko edo lantokietako gehienak ordezkari badituzte; horretarako, batzordeko kide bakoitzak kasuan-kasuan zer ordezkari-ehuneko duen hartuko da kontuan.

Kontsulta-aldiko akordio kolektiboa izango da 26. artikuluan aipatzen diren subjektuek kontsulta-aldian onartu dutena, ez besterik.

2. Enpresaburuak eta langileen ordezkari aukeran izango dute, kontsulta-aldiko edozein unetan, kontsulta-aldiaren ordezkari enpresan aplikatzekoak diren bitartekaritza- edo arbitraje-prozedurak abiarazteko eskatzea, batez ere langatazketako judizioz kanpoko konponbideen gaineko akordioetan arautzen diren prozedurak, diren estatuko akordioak edo autonomia-erkidegoetakoak.

Nolanahi ere, bitartekaritza- edo arbitraje-prozedura langileen ordezkarietako kontsulta-aldirako ezarritako gehienezko epearen barruan gauzatu beharko da.»

Azken xedapenetako bosgarrena. *Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen testu bategina aldatzea (4/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5koa).*

Berrogeita bigarren xedapen iragankorra gehitzen zaio Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen testu bateginari (4/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5koa). Hona nola geratzen den idatzita:

«Berrogeita bigarren xedapen iragankorra. *Zenbait finantza-errentamenduri aplikatzekoa den araubide fiskalari buruzko Europako Batzordearen Erabakia, 2013ko uztailaren 17koa. Nola aplikatu behar den.*

2007ko apirilaren 30a eta 2011ko ekainaren 29a bitartean, administrazio-baimenak eman ziren interes ekonomikoko multzoen alde (12/1991 Legea,

apirilaren 29koa, interes ekonomikoko multzoei buruzkoa), lege honen 115. artikulua 11. paragrafoari buruz (betiere 2012ko abenduaren 31n indarrean zen idazketaren arabera) eta itsasketa-entitateen tonajearen arabera araubide fiskal bereziari buruz. Bada, Europako Batzordeak finantza-errentamenduko zenbait akordiori aplikatzekoa zaien araubide fiskalari buruz 2013ko uztailaren 17an onartutako erabakiaren 1. eta 3. artikuluek xedatutakoaren arabera, administrazio-baimen horiek honako berezitasun hauek izango dituzte:

a) Lege honen 115. artikulua 11. paragrafoan xedatutakoa (2012ko abenduaren 31ko idazketari jarraituz, betiere) ez da aplikatzekoa izango, erabaki honetan ezarritako baldintzen arabera Estatuaren laguntza bateraezina den heinean.

b) Ez zaie aplikatzekoa izango tonajearen arabera itsasketa-erakundearen araubide fiskal berezia interes ekonomikoko multzoei, erabaki honetan aurreikusitako baldintzen arabera Estatuaren laguntza bateraezina den heinean.»

Azken xedapenetako seigarrena. *8/2013 Errege Lege Dekretua aldatzea (8/2013 Errege Lege Dekretua, ekainaren 28koa, herri-administrazioen berankortasunaren kontrako eta finantza-arazoak dituzten toki-erakundeei laguntzeko premiazko neurriei buruzkoa).*

Aldatu egiten da 8/2013 Errege Lege Dekretua, ekainaren 28koa, herri-administrazioen berankortasunaren kontrako eta finantza-arazoak dituzten toki-erakundeei laguntzeko premiazko neurriei buruzkoa. Hona nola:

Bat. Aldatu egiten da 14. artikulua 3. paragrafoa. Hona nola geratzen den idatzita:

«3. Lehenagoko faseetan mekanismo hau aplikatu izan zaien toki-erakundeek, 2013ko irailaren 15erako, beteta eduki beharko dituzte egun horretara arteko hornitzaileei ordaintzeko Finantzaketa Funtzarekiko betebeharrak, baldin eta funts horrekiko zor-eragiketa berria formalizatu nahi badute errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren arabera.

Betebehar hori egun horretarako beterik ez duten toki-erakundeek ezingo diote hornitzaileei ordaintzeko mekanismoaren fase horri heldu, non eta ez duten aurkezten 32. artikuluan aipatzen den eskabidea 2013ko irailaren 30erako.»

Bi. Aldatu egiten da 9. artikulua. Hona nola geratzen den idatzita:

«9. artikulua. *Autonomia-erkidegoen transferentziak.*

1. Fase berri honetan sartu ahal izango dira hornitzaileei ordaintzeke dauden obligazioak, 2013ko maiatzaren 31 baino lehen; betiere mugaeguneratuak, likidoak eta galdagarriak badira, eta 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera kontabilizatuak badaude.

2. Hala, 3. artikuluan aurreikusitako harreman juridikoak ez ezik, autonomia-erkidegoek toki-erakundeei egindako transferentziak ere sartuko dira, betiere autonomia-erkidegoak erakunde horiekiko 2012ko abenduaren 31n ordaintzeke zituen ordainketa-obligazioen mugaraino, baldin eta toki-erakundeak ordainketa-obligazio ordaindu gabeak baditu, mekanismoaren fase berri honetan sartuta eduki beharrekoak.

3. Nolanahi ere, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundearen hornitzaileei ordaintzeko finantzaketa-mekanismoaren fase honetako zorraren azken zenbatekoa finkatutakoan, eskualde-kontseiluek beren hornitzaileekin dituzten zorrak ere sartu ahal izango dira fase berri honetan, betiere mugaeguneratuak, likidoak eta galdagarriak badira, 2013ko maiatzaren 31 baino lehen sartzen badira mekanismoan, kontabilizatuta badaude 11. artikuluan xedatutakoaren arabera eta 3. artikuluan xedatzen diren harreman juridikoetako batetik badatoz; muga, ordea,

autonomia-erkidegoak eskualde-kontseiluarekin 2012ko abenduaren 31 baino lehen dituen zorren zenbatekoa izango da.

Aurreko paragrafoan aipatzen den muga hori gainditu nahi bada, ordea, beharrezkoa izango da autonomia-erkidegoak baimena eska diezaion eskualde-kontseiluari eta harekin doikuntza-plan bat ados dezan, neurri berariazko eta kuantifikatuekikoa eta aplikazio-egutegi batekikoa, autonomia-erkidegoak hitzartutako zorpetze-eragiketetatik ondorioztatutako zenbatekoak ordainduko direla bermatzeko. Doikuntza-plan hori autonomia-erkidegoak Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioari igorri beharko dion doikuntza-planaren barruan txertatua egongo da.

Gobernuaren Ekonomia-gaietarako Batzorde Eskuordeak erabakiko du zer epetan eta zer prozeduraren bidez ordaindu behar diren mekanismo honen kontura eta errege lege-dekretu honetan ezarritakoaren arabera eskualde-kontseiluek ordaintzeke dituzten zorrak.»

Azken xedapenetako zazpigarrena. Erabilera orokorreko errepideetatik bidaiariak garraiatzeko zerbitzu publiko erregularren kudeaketa kontratuetako behin betiko bermearen zenbatekoa aldatzea.

1. Erabilera orokorreko errepideetatik bidaiariak garraiatzeko zerbitzu publiko erregularren kudeaketa kontratuen esleipendunek behin betiko bermea eratu dutela egiaztatu beharko dute, sektore publikoko kontratuei buruzko legeek aurreikusitakoarekin bat.

2. Berme horien zenbatekoa zehaztearekin loturiko arauak eta irizpideak ezartzeko gaitzen da Gobernua, horrela egitea beharrezkotzat jotzen denean zerbitzuen prestazio egokia bermatzeko, hain zuzen.

Azken xedapenetako zortzigarrena. Erregelamenduzko xedapenak aldatzea.

Lege honek aldatzen dituen erregelamendu-mailako arauetako xedapenak gero ere aldatu ahal izango dira, xedapen horiek jasota dauden arauetara dagokien erregelamendu-mailako arauen bitartez.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. Erkidegoko Zuzenbidea txertatzea.

Lege honen bitartez, Espainiako zuzenbidean txertatzen da, partez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/34/EB Zuzentaraua, 2012ko azaroaren 21ekoa, europar trenbide-eremu bakarra ezartzeko.

Azken xedapenetako hamargarrena. Arauak onartzeko gaikuntza.

Honen bidez, gaikuntza ematen zaio gobernuari lege honetan xedatutakoa garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eta neurriak eman ditzan.

Azken xedapenetako hamaikagarrena. Indarrean jartzea.

Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Beraz,

Lege hau betetzeko eta betearazteko agintzen diet espainiar guztiei, norbanakoei eta agintariei.

Madril, 2014ko otsailaren 28a.

JUAN CARLOS E.

Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY

I. ERANSKINA

Aena Aeropuertos SA sozietatearen ondare-prestazio publikoen 2013 ekitaldiko tarifan zenbatekoa

1. Lurreratzea eta aerodromoko igarotze-zerbitzuak

Unitate-zenbatekoak

Aireportua	Lurreratze unitate-tarifa – Euroak	Aerodromoko igarotze- zerbitzuen unitate-tarifa – Euroak
Madril-Barajas	8,387050	3,515400
Bartzelona-El Prat	7,388850	3,493700
Alacant, Kanaria Handia, Málaga-Costa del Sol, Palma eta Tenerife hegoaldea	7,009100	3,428600
Bilbo, Fuerteventura, Girona, Eivissa, Lanzarote, Menorca, Santiago, Sevilla, Tenerife iparraldea eta Valentzia	5,880700	3,146500
Coruña, Almería, Asturias, FGL Granada-Jaén, Jerez, Palma, Murtzia-San Javier, Reus, Santander, Vigo eta Zaragoza	4,307450	2,462950
Albacete, Algeciras, Badajoz, Burgos, Ceuta, Kordoba, Cuatro Vientos, Hierro, Huesca-Pirinioak, Gomera, León, Logroño, Melilla, Iruñea, Sabadell, Salamanca, Donostia, Son Bonet, Torrejón, Valladolid, Gasteiz eta Aena Aeropuertos SAK kudeatutako gainerako aireportuak	2,842700	2,094050

Lurreratzeagatik eta aerodromoko igarotze-zerbitzuengatik operazio bakoitzeko pagatu behar den gutxieneko zenbatekoa.

Aireportua	Operazioko gutxieneko zenbatekoa - lurreratzea – Euroak	Aerodromoko zirkulazio- zerbitzuen gutxieneko zenbatekoa – Euroak
Madril-Barajas	154,62	71,88
Bartzelona-El Prat	136,19	71,48
Alacant, Kanaria Handia, Málaga-Costa del Sol, Palma eta Tenerife hegoaldea	96,92	51,20
Bilbo, Fuerteventura, Girona, Eivissa, Lanzarote, Menorca, Santiago, Sevilla, Tenerife iparraldea eta Valentzia	16,29	8,71
Coruña, Almería, Asturias, FGL Granada-Jaén, Jerez, Palma, Murtzia-San Javier, Reus, Santander, Vigo eta Zaragoza	10,82	6,18
Albacete, Algeciras, Badajoz, Burgos, Ceuta, Kordoba, Cuatro Vientos, Hierro, Huesca-Pirinioak, Gomera, León, Logroño, Melilla, Iruñea, Sabadell, Salamanca, Donostia, Son Bonet, Torrejón, Valladolid, Gasteiz eta Aena Aeropuertos SAK kudeatutako gainerako aireportuak	5,86	4,31

Eskola- eta entrenamendu-hegaldiak

Aireportua	Lurreratzeko unitate-tarifa – Euroak	Aerodromoko igarotze-zerbitzuen unitate-tarifa – Euroak
Madril-Barajas	5,913250	3,895150
Bartzelona-El Prat	5,696250	3,873450
Alacant, Kanaria Handia, Málaga-Costa del Sol, Palma eta Tenerife hegoaldea	5,110350	3,808350
Bilbo, Fuerteventura, Girona, Eivissa, Lanzarote, Menorca, Santiago, Sevilla, Tenerife iparraldea eta Valentzia	5,110350	3,493700
Coruña, Almería, Asturias, FGL Granada-Jaén, Jerez, Palma, Murtzia-San Javier, Reus, Santander, Vigo eta Zaragoza	4,567850	2,745050
Albacete, Algeciras, Badajoz, Burgos, Ceuta, Kordoba, Cuatro Vientos, Hierro, Huesca-Pirinioak, Gomera, León, Logroño, Melilla, Iruñea, Sabadell, Salamanca, Donostia, Son Bonet, Torrejón, Valladolid, Gasteiz eta Aena Aeropuertos SAK kudeatutako gainerako aireportuak	4,036200	2,321900

Aireportuaren ordutegi operatiboaz kanpoko eragiketak

Lurreratzeko unitate-tarifa: 31,106950 €/Tm

Aerodromoko igarotze-zerbitzuen unitate-tarifa: aerodromoko igarotze-zerbitzuen operazioko gutxieneko zenbatekoari dagokiona

2. Bidaiariak, MUPak eta segurtasuna

Aireportua	Bidaiariaren zenbatekoa		Aireportu- segurtasunaren zenbatekoa – Euroak	MUParen zenbatekoa – Euroak
	EEE – Euroak	Nazioartekoa – Euroak		
Madril-Barajas	15,67	22,18	3,75	0,61
Bartzelona-El Prat	14,58	17,84	3,75	0,61
Alacant, Kanaria Handia, Palma, Málaga-Costa del Sol eta Tenerife hegoaldea	6,50	9,80	3,75	0,61
Bilbo, Fuerteventura, Eivissa, Lanzarote, Menorca, Santiago, Sevilla, Tenerife iparraldea eta Valentzia	5,54	8,32	3,75	0,61
Coruña, Almería, Asturias, FGL Granada-Jaén, Girona, Jerez, Palma, Murtzia-San Javier, Reus, Santander, Vigo eta Zaragoza	3,97	5,96	3,75	0,61
Albacete, Algeciras, Badajoz, Burgos, Ceuta, Kordoba, Cuatro Vientos, Hierro, Huesca-Pirinioak, Gomera, León, Logroño, Melilla, Iruñea, Sabadell, Salamanca, Donostia, Son Bonet, Torrejón, Valladolid, Gasteiz eta Aena Aeropuertos SAK kudeatutako gainerako aireportuak	2,60	3,90	3,75	0,61

Harik eta Lurreko Garraioak Antolatzeko Legea (16/1987 Legea, uztailaren 30ekoa) eta Aire Segurtasunari buruzko Legea (21/2003 Legea, uztailaren 7koa) aldatzen dituen uztailaren 4ko 9/2013 Legearen bigarren artikuluan xedatutakoa indarrean sartu arte –«Aire Segurtasunari buruzko Legea aldatzea (21/2003 Legea, uztailaren 7koa)» du izena–, aireportu-segurtasunari dagozkion zenbatekoak 0,38 euro gehituko dira irteeretako

bidaiari bakoitzeko, Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziak ekipajeak ikuskatu eta kontrolatzeko zerbitzuetan emandako lankidetzarengatik.

Aena Aeropuertos, S.A. sozietateak horregatik biltzen dituen diru-zenbatekoak Estatuaren Aire Segurtasuneko Agentzian sartuko dira.

3. Karga.

Honela zehaztuko da zenbatekoa: aireportu-barrutian zamatutako edo hustutako salgai-kilogramo bakoitzeko, 0,018956 euro.

4. Aireontziak aparkatzea

Madril-Barajas, Bartzelona-El Prat, Alacant, Kanaria Handia, Málaga-Costa del Sol, Palma, Tenerife hegoaldea, Bilbo, Fuerteventura, Girona, Eivissa, Lanzarote, Menorca, Santiago, Sevilla, Tenerife iparraldea eta Valentzia aireportuetan, aparkatzeko ordaindu behar den zenbatekoa, pisuaren eta aireontziak aparkatuta eman behar duen denboraren arabera, formula honen emaitzaren arabera izango da:

$$E = e \cdot T_m \cdot F_t$$

Eta, hor:

E: zerbitzuagatik ordaindu beharreko ordainsari osoa.

e: unitateko koefizientea.

T_m: aireontziaren gehienezko pisua aireratzeko orduan, tonatan adierazia.

F_t: aireontziak aparkatuta eman behar duen denbora, 15 minutuko tarteetan edo tarte horren zatikietan adierazia.

Unitateko koefizienteen zenbatekoa honako hau izango da:

Aireportua	15 minutuko edo tarte horren zatikiko galerak. - Euroak
Madril-Barajas	0,127770
Bartzelona-El Prat	0,121881
Alacant, Kanaria Handia, Málaga-Costa del Sol, Palma eta Tenerife hegoaldea	0,120770
Bilbo, Fuerteventura, Girona, Eivissa, Lanzarote, Menorca, Santiago, Sevilla, Tenerife iparraldea eta Valentzia	0,067107

Goian aipatutako aireportuetan aparkatzeagatik gehienez ordaindu beharreko zenbatekoa ezin da izan 1.614 € baino gehiago egonaldiaren lehenbiziko 24 orduetan.

Egonaldiaren bigarren egunetik aurrera, gorago aipatutako aireportuetan aparkatzeagatik gehienez ordaindu beharreko zenbatekoa ezingo da izan 880€ baino gehiago aparkatuta edukitako 24 ordu gehigarri bakoitzeko.

Coruña, Albacete, Algeciras, Almería, Asturias, Badajoz, Burgos, Ceuta, Kordoba, Cuatro Vientos, Hierro, Huesca-Pirinioak, FGL Granada-Jaén, Jerez, Gomera, Palma, León, Logroño, Melilla, Murtzia-San Javier, Iruñea, Reus, Sabadell, Salamanca, Donostia, Santander, Son Bonet, Torrejón, Valladolid, Vigo, Gasteiz, Zaragoza eta Aena Aeropuertos S.A sozietateak kudeatutako gainerako aireportuetan, aparkatzeagatik ordaindu beharreko zenbatekoak, aparkaldi-eguneko edo hiru orduko aparkaldiaren zatikiko eta aireontziak aireratzean duen pisuaren arabera, honako hauek izango dira:

10 Tm arteko aireontziak		10 Tm baino gehiagoko aireontziak
2 Tm artekoak 1,556027 euro, aireontzi/eguneko edo zatikiko	2 eta 10 Tm artekoak 7,778529 euro, aireontzi/eguneko edo zatikiko.	0,898304 euro Tm-ko, eguneko edo egun-zatikiko.

5. Erregaiak eta lubrifikatzaileak

Ordainaren zenbatekoa zehazteko, honako unitate-zenbateko hauek aplikatuko zaizkio hornitutako erregai- edo lubrifikatzaile-bolumenari:

Kerosenoa: 0,004273 €/litroko

Abiazioko gasolina: 0,007270 €/litroko

Lubrifikatzaileak: 0,007270 €/litroko

6. Hegazkineratzeko igarobidea

Ordainaren zenbatekoa, pisuaren eta aireontziak igarobideari atxikita ematen duen denboraren arabera, honako formula hau aplikatzearen emaitza izango da:

$$P = (p_1 + p_2 * T_m) * F_t$$

Eta, hor:

P: Zerbitzuagatik ordaindu beharreko ordainsari osoa.

p_1 : Igarobidean emandako denboragatik dagokion unitate-zenbatekoa.

p_2 : Aireontziaren pisuarengatik eta igarobidean emandako denboragatik dagokion zenbatekoa.

T_m : Aireontziak aieratzean duen gehienezko pisua, tonetan adierazita, lege honen 2. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

F_t : Aireontziak igarobidean emandako denbora, 15 minutuko epeetan edo epe horren zatikitan adierazia.

p_1 eta p_2 elementuen unitate-zenbatekoak honako hauek dira:

Aireportua	p_1 Euroak	p_2 Euroak
Madril-Barajas	33,231163	0,00
Bartzelona-El Prat	30,128606	0,00
Alacant, Kanaria Handia, Málaga-Costa del Sol, Palma eta Tenerife hegoaldea	26,496460	0,00
Bilbo, Fuerteventura, Girona, Eivissa, Lanzarote, Menorca, Santiago, Sevilla, Tenerife iparraldea eta Valentzia	25,477319	0,00
Coruña, Almería, Asturias, FGL Granada-Jaén, Jerez, Palma, Murtzia-San Javier, Reus, Santander, Vigo eta Zaragoza	25,477319	0,00
Albacete, Algeciras, Badajoz, Burgos, Ceuta, Kordoba, Cuatro Vientos, Hierro, Huesca-Pirinioak, Gomera, León, Logroño, Melilla, Iruñea, Sabadell, Salamanca, Donostia, Son Bonet, Torrejón, Valladolid, Gasteiz eta Aena Aeropuertos SAk kudeatutako gainerako aireportuak	25,477319	0,00

7. Lurreko laguntza-zerbitzuak

Sekzio honetan arautzen den ordainaren zenbatekoa honako hau izango da, ordaintzeko betebeharra duenak lurrean gauzatzen dituen laguntza-zerbitzuen arabera:

a) Aireontziarentzako laguntza:

1.1 Arranpa-zerbitzua.

1.1.1 Ekipajeekin laguntzeko zerbitzua, 3. zerbitzu-taldea: 62,98 € aireontzi bakoitzeko, aireratzeko orduan 56 eta 71 tona metriko edo zatikia badu gehienezko pisua.

1.1.2 Pistako eragiketei laguntzeko zerbitzua, 5. zerbitzu-taldea: 20,00 € aireontzi bakoitzeko, aireratzeko orduan 56 eta 71 tona metriko edo zatikia badu gehienezko pisua.

1.2 Aireontziaren garbiketa eta zerbitzuko laguntza-zerbitzuak, 6. zerbitzu-taldea, salbu eta aireontziari elurra, izotza eta lantzurda kentzeko laguntza: 10,98 € aireontzi bakoitzeko, aireratzeko orduan 56 eta 71 tona metriko edo zatikia badu gehienezko pisua.

1.3 Aireontziari elurra, izotza eta lantzurda kentzeko laguntza-zerbitzua, 6.b) taldearen zatia: 2,98 € aireontzi bakoitzeko, aireratzeko orduan 56 eta 71 tona metriko edo zatikia badu gehienezko pisua.

1.4 Lineako mantenimenduko laguntzarako zerbitzuak, 8. zerbitzu-taldea: 2,98 € aireontzi bakoitzeko, aireratzeko orduan 56 eta 71 tona metriko edo zatikia badu gehienezko pisua.

1.5. Maiordomozako (catering) laguntza-zerbitzuak, 11. zerbitzu-taldea: aireratzean 56 eta 71 tona metriko edo frakzio bitarteko pisua duen aireontzi bakoitzeko zenbatekoak (eurotan) hauexek izango dira:

Aireportua	EEE – Euroak	Nazioartekoa – Euroak
Madril-Barajas	29,88	49,80
Bartzelona-El Prat	20,92	34,86
Alacant, Kanaria Handia, Málaga-Costa del Sol, Palma eta Tenerife hegoaldea	19,42	32,37
Bilbo, Fuerteventura, Girona, Eivissa, Lanzarote, Menorca, Santiago, Sevilla, Tenerife iparraldea eta Valentzia	14,94	24,90
Coruña, Almería, Asturias, FGL Granada-Jaén, Jerez, Palma, Murtzia-San Javier, Reus, Santander, Vigo eta Zaragoza	10,46	17,43
Albacete, Algeciras, Badajoz, Burgos, Ceuta, Kordoba, Cuatro Vientos, Hierro, Huesca-Pirinioak, Gomera, León, Logroño, Melilla, Iruñea, Sabadell, Salamanca, Donostia, Son Bonet, Torrejón, Valladolid, Gasteiz eta Aena Aeropuertos SAK kudeatutako gainerako aireportuak	5,98	9,96

Aireontziaren gehienezko pisua, aireratzeko orduan, ez badago 56 eta 71 tona metriko artean, lehen aipatu diren zenbateko horiei honako koefiziente hauek aplikatuko zaizkie, aireontzia zer pisu-tartetan dagoen:

Aireontziak aireratzeko orduan duen gehienezko pisuaren tarteak (Tm)	Koefizientea
Gehienezko pisua 0 eta 16 Tm baino gutxiago artean duten aireontziak	% 13,16
Gehienezko pisua 16 eta 22 Tm baino gutxiago artean edo horren zatikia duten aireontziak	% 17,51
Gehienezko pisua 22 eta 38 Tm baino gutxiago artean edo horren zatikia duten aireontziak	% 28,04
Gehienezko pisua 38 eta 56 Tm baino gutxiago artean edo horren zatikia duten aireontziak	% 77,88
Gehienezko pisua 56 eta 72 Tm baino gutxiago artean edo horren zatikia duten aireontziak	% 100,00
Gehienezko pisua 72 eta 86 Tm baino gutxiago artean edo horren zatikia duten aireontziak	% 120,33
Gehienezko pisua 86 eta 121 Tm baino gutxiago artean edo horren zatikia duten aireontziak	% 135,30

Aireontziak aineratzeko orduan duen gehieneko pisuaren tarteak (Tm)	Koefizientea
Gehieneko pisua 121 eta 164 Tm baino gutxiago artean edo horren zatikia duten aireontziak	% 150,28
Gehieneko pisua 164 eta 191 Tm baino gutxiago artean edo horren zatikia duten aireontziak	% 179,37
Gehieneko pisua 191 eta 231 Tm baino gutxiago artean edo horren zatikia duten aireontziak	% 202,50
Gehieneko pisua 231 eta 300 Tm baino gutxiago artean edo horren zatikia duten aireontziak	% 264,81
Gehieneko pisua 300 Tm baino gehiago edo horren zatikia duten aireontziak	% 314,64

b) Bidaiariari laguntzeko zerbitzuak, 2. zerbitzu-taldea: 0,0438 € irteerako bidaiari bakoitzeko.